



**Ahoztar Zelaietak**  
Plentzian aurkeztuko du  
*Kutxabank. El saqueo de*  
*Euskal Herria* liburua ▶15

**Maiatzean epaituko duten Erika**  
Bilbaoren psikologoa da Olatz  
Barrenetxea. Bere ustez, «nortasuna  
suntsitzea du helburu torturak» ▶7



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**47. zenbakia**

2015eko  
otsailaren 4tik  
otsailaren 10era arte



## Mozorrotzeko gogoz?

BERBETAN LEIOA

### Travellin' Brothers taldearen disko berria

**Aitor Cañibano** gitarra-joleak seikote leioaztarraren *One day in Norway* lanaz egin digu berba; otsailaren 5ean plazaratuko dute. ▶16-17



### Urduliz eta Berango, podiumean ▶18

Urdulizko eta Berangoko eskubaloi-taldeak zorioneko daude. Urdulizko mutil kadeteek Bizkaiko txapelketa irabazi dute; neska gazte urduliztarak txapelkunordeak dira, eta Berangoko neska gazteak eta Urdulizko mutil gazteak podiumeko hirugarren lekura heldu dira. Gainera, Urdulizko kadeteak Euskal Ligara igotzeko promozioan sartu dira, eta Euskadiko Txapelketako tituluagatik lehiatuko dira laster. ▶14

### Mihiluze lehiaketaren finala, prest! ▶11



**Berdintasunerako III. Planak** aurreikusitako ekintzen %67,2 burutu dituzte, beste %10 egiteko fasean daude, Getxon. ▶3

**Leioako Udalaren aurrekontuak** onartu zituzten urtarrilaren 28ko osoko bilkuran, EAJ eta PSE-EEren botoakaz. ▶6

**Gorlizko aurrekontuak aho** batez onartu dituzte, 2015ean onartutakoak baino %1,74 zenbateko gutxiagotzat. ▶9

**Erandioko ipuin eta bertsopaper lehiaketak** martxan daude, lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 4a da. ▶11





Pentsalekutik

**MAITANE NEREKAN UMARAN**  
Ezertan aditua, askotan aritua

## Gernikako arbola eta Antzokiko garabia

**B**atzuk diote euskaldunok mundu sinboliko aberatsa dugula; sinboloek elikatzen dute gure imajinarioa eta sinboloengatik borrokatzeko joera handia dugu. Ikurriña, Amaiurko gaztelua, lauburu, Anbotoko Mari... eta Gernikako arbola! Bada, algotarrok sinbolo berria izan dugu azken urteotan, herri honen gobernantzan Frankoren garaitik dagoen talde txit agurgarriari esker: Txiki-Otaegi plazako (San Nikolas nahi duzenentzat) garabia. Hain zen elegantea, hain liraina... 28 metroko eta 23 tonako jirafa erraldoia, ikurriñaren zuri-gorri-berdez jantzita gainera! Opari ederra plazaren erdian utzi zigutena. Bidezabal, Malakate edo Telletzeko jolas parkeek ez zuten zer eginik Garabi anderearen ondoan. Umeak liluratuta gelditzen ziren hari begira eta gurasoei galdetu ei zioten «Zeruan ere adreiluak jarri ahal ditu horrek?». Ikusi dugu baietz, zerua ere adreiluz josteko gaitasuna duela, plazari itzala egitearaino. Eta orain, Garabi maiteak gure bihotzetan lekutxo bat zuzenean, beste herriren batera eramateko ordua heldu dela erabaki dute Jeltzaleek. Bihozgabeak haiek! Norekin liluratuko dira orain herriko umeak? Aitortu behar dizuet nik ere behin baino gehiagotan amets egin dudala Garabiarekin... amets erotiakoak gainera! Antzokiari muxu ematen saiatzen zen horietako batean, baina hurbiltzerakoan, haize-kolpe batek bultzatzen zuen eta Antzokiaren gainera erortzen zen, bere maitalea goitik behera suntsituz. Batzuen ametsa, besteen amesgaiztoa... Makro-foko kalifragilistikoaren itzalarekin konformatu behar dugu orain. Eta, bat-batean, galdera bat dator kit burura: forma luze, faliko eta bertikala duten hainbeste elementu herriko plazan... ez gara baten-baten konplexuen biktima izaten ari? ◀

Getxo

# Mozio ugari, onartuta

**Horietatik guztietatik bi** bete beharrekoak izango dira, gainontzekoek «testimonio-izaera» dute.

**U**dalbatzak udal langileen ordainsariak %1 igotzea onartu zuen azkenengo osoko bilkuran. Neurriak daborduko izan du eragina; hala, Eudelek ordainsariei lotutako gomendioa beteko du Udalak. Proposamenak alderdi politiko denen oniritzia jaso zuen, EH Bildurena izan ezik, abstenitu baitzen, igoera hori «eskasa» dela uste baitu.

Horrez gainera, bederatzi mozio onartu ziren, guztira. Horietatik, hiru PPK proposatu zituen; beste bi, GUK-k, eta gainerako laurak, EH Bilduk. Popularrek eta EH Bilduk aurkeztutako proposamen banatan, gobernu-taldeak transakzio-emendakina aurkeztu zuen. Hala, Udal Gobernuak «testimonio-izaera» eman zien beste zazpi mozioei. PPGaz adostutakoaren arabera, Udalak honako ekimenak garatuko ditu: Gobelako lanen ondorioak gutxitzeko beharrezko neurriak hartzea; frontoi, atletismo, errugbi eta te-



Denera, bederatzi mozio onartu ziren.

niserako guneek eskaintzen dituzten zerbitzuen planifikazioa egitea, obrek iraun bitartean; eta hori lortzeko Getxo Kirolak-k beharrezko duena egitea. Era berean, EH Bilduk gobernu-taldearen mozio transakzionalaren testua onartu zuen, ostalaritzan iturriko ura erabiltzeko proposamenaren ingurukoa. Hala, udalerriko tabernetan eta jate-txeetan iturriko ura edateko kanpaina martxan jartzea adostu zuten. Gainera-

ko mozioek honakoak eskatzen zituzten: osoko bilkurak zuzenean eskaintzea; komun publikoen sarea ezartzea; argiztapen publikoan, jatorri berriztagarrikoa izatea energia; udal web-gunea egokitzea ikusteko urritasuna dutenentzat; EAEk eskuduntza izatea mendien gaineko araudi osoa ezartzeko; udalerriko antimilitarista eta bakezalea izatea; eta, errefuxiatuen beharretarako finantziarioa eskaintzea. ◀



«Aparka» sistemadun geltokiak ezarri dituzte Getxoko 12 lekutan. GETXOKO UDALA

## Bizikletak modu «seguruan» aparkatzeko sistema, martxan

**M**artxan da GetxoBizi bizikletak maileguan emateko udal zerbitzua, berrituta eta «aparka» sistemaz. Hala, bizikleta publikoak zein pribatuak aparkatzeko 168 leku «seguru» ditu zerbitzuak, udalerriko 12 tokitan banatuta. Guztira, 150 bizikleta publiko daude maileguan hartzeko, argia dutenak eta aldagailudunak, eta beste 10 bizikleta elektriko. «Aparka» sistema abian jarrita, Udalak GetxoBizi-ren

instalazioak berritu ditu hiriko txirridularitzari irtenbide integral bat emateko: ekipamendu berean daude bizikleta publikoaren mailegu-zerbitzua, eta bizikleta pribatuak seguru aparkatzeko sistema. Zerbitzu horri esker, joan-etorriak erraz eta modu iraunkorrean egin ahal izatea gura izan du Udalak, «ingurumena errespetatuz». Mailegukoaren orain arteko lekuen ordean ipini dira «Aparka»-ko geltoki berriak. ◀

## Gizarte-larrialdiko laguntza eskatzeko epea zabaldu dute

**G**izarte Larrialdiko Laguntza eskatzeko epea zabalik dago daborduko. Eskaeren berri izateko, oinarriko gizarte-zerbitzuko bulegora joan beharra dago, tramitazioa abiatzeko hitzordua eskatzeko, eta aurkeztu beharreko agiriak jasotzeko.

Laguntza horiek prestazio ekonomikoak dira, gastu zehatzei aurre egiteko baliabide gutxi dituztenei, eta etxebizitza-unitatea osatzen dutenei diruz laguntzeko. Gastu horiek ohi-koak edo ezohikoak izan daitezke: ostatua mantentzeko gastuak (ura, argia, zarama eta estolderia tasak, OHZ...); alokairua, interesak edo hipoteka-mailegua amortizatzeak; lehen mailako beharretarako gastuak (arropa, hezkuntza edo arreta medikoa...); etxean bizitzeko beharrezko ekipamenduetarako gastuak (altzariak eta etxe-tresna elektrikoak erosteko edo konpontzeko); eta aurreko kontzeptuengatik izandako zorpetze gastuetarako. ◀



Getxo

# Berdintasunerako bidea

**Berdintasunerako III. Planak** aurreikusitako ekintzen %67,2 amaitu dituzte, eta beste %10 bidean daude.

Getxoko Udalak 2011-2014ra bitartean aurrera eroandako Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako III. Planaren ekintzen burutze-maila %67,2koa izan dela, eta ekintzen beste %10 egiteko fasean daudela azaldu dute arduradunek. Argitu dutenez, Osasuna, Gizarte eta Kultur Inklusioa, Komunikazioa, Kirola eta Lankidetzaren arloek izan dute burutze-maila handiena; ostera, Hezkuntza, Enplegua, Hirigintza, eta Ingurumen eremuek betetze-maila txikiagoa izan dutela jakinarazi dute.

Arduradunek azaldu dutenez, Berdintasunerako Plana udalerriko hainbat eragileren partaidetzagaz diseinatu zen, besteak beste: Udaleko

teknikari eta politikariez gainera, 36 herritarrek parte hartu zuten. Emandako datuen arabera, osasun-arloan bete dira egindako ekintza gehienak (%84,6), eta horri gehitu behar zaizkio oraindino garatzen dabiltzanak, %92,3ko mailara heldu arte. Hoberen baloratutakoen artean daude Jabekuntza Eskolan emakumezkoak osasunaren gainean duten auto-egagutza eta auto-kudeaketa indartzera zuzendutako jarduerak, eta aholkularitza, informazio sexualaren udal egoitza. Gainera, ekintza batzuek sendotu egin dute beste entitate batzuek dauden lankidetzaren harremanak, eta era berean, erantzunkidetasuna sustatu dute. Gizarte-inklusiokoan (ekintzen %76,5, egin da edo egiteko fasean), berriz, sendotu

ei dira herritarrei zuzendutako komunikazio-bideak; horretan, emakume immigranteak artatzeko eta urritasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak egin dira, besteak beste. Hezkuntza-arloan aurrerapen esanguratsuak lortu omen dira; horretan gauzatu dituztenen artean daude, berbarako: tratu txarrak atzeman eta prebenitzeko ekintzak, sentsibilizazio-programak Gaztelekuan, aisialdi-jarduerak, eta ikastetxeetan heziketa-programak (adib.: «Eraldatzen» eta «Berandu ez heltzeko»). Horrez gainera, udalerriko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun egoeraren diagnostikoa egiten dabil Udala, Berdintasunerako IV. Planari begira lehentasunezko arloak identifikatzeko. Hori amaitzean, plana diseinatzen hasiko dira; horretarako, metodologia parte-hartzailea abiatzea «garrantzitsua» dela uste dute udal arduradunek. ◀

## Emakumeen ahotsa aktibatzeke ikastaroa egingo dute berriro

Martxoak 8ko Nazioarteko Emakumeen Egunari begira daude da-borduko Getxoko emakumeak. Izan ere, «Aktibatu zure ahotsa» izeneko tailerrean parte hartu zutenek tailer berezi bat egitea eta martxoaren 6an kalean performancea egitea adostu zuten. Tailerra 8 ordukoa izango da, lau orduko saio bitan banatuta: otsailaren 28an eta martxoaren 5ean, 16:00etatik 20:00etara, Gobelako kiroldegian. Ondoren, martxoaren 6an, domekan, aurreko saio biotan landutako guztia kalean esperimintatzeko aukera izango dutela jakinarazi dute antolatzaileek, «emakumeon koro handi bat eginez». Ekintza hori Algotako San Nikolas plazan egingo dute, 13:00etan. Tailerra doakoa izango da, eta gura duten emakume guztiak parte har dezakete; hori bai, alde zuretik izena eman beharko dute. ◀

harremanetarako: [berdintasuna@getxo.eus](mailto:berdintasuna@getxo.eus)

**GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA**

**5 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK OTSAILETIK EKAINERA MAILA GUZTIAK**

**OTSAILAREN 17RA ARTE MATRIKULA ZABALIK IKASTARO-HASIERA: OTSAILAK 22**

**LOPE DE VEGA, 12 - 48930 (Romo)**  
 tfno: 94 464 62 99 / 94 464 65 02 • e-mail: [euskaltegi@getxo.eus](mailto:euskaltegi@getxo.eus)



## Getxo

## Getxo Antzokiaren finantzazio-eredua salatu du oposizioak

Azken urteotan Udalaren lurzor-aru-ondarea «asko» murriztu dela salatu du GUK-k azken osoko bilkuran. Horien esanetan, «galdutako dirua» Getxo Antzokia eta Romoko Kultur Etxea eraikitzeko bideratu dute. Azaldu duteenez, gobernu-taldeak diru-kontu hori murriztu du proiektu biak ordaintzeko; hala, Udalaren lurzor-aru-ondarea ia 5 milioi euroan gelditu da 2015ean; 2011n 15.497.780 eurokoa zen, ostera. Udal lurren salmentatik ateratako dirua azpiegitura bi horietara bideratu dutela ere salatu dute. Horren harira 2014an, EH Bilduk adierazi zuen salmenta horiekaz lortutako diruak «etxebizitza sozialak eraikitzen joan behar zuela», eta Antzokia eraikitzen bideratzea «onartezina» zela. Halere, egindako guztia legala dela azaldu du gobernu-taldeak. Gaur egun, oposizioko talde guztiek uste dute diru hori udalerririk bizi duen «etxebizitza arazoari» aurre egiteko erabili beharrekoa litzatekeela. ◀

## Gurutze Gorriaren ikastaroak, aukeran

Uriben Aldeko Gurutze Gorriak ikastaro bi antolatu ditu: Lehen Sorospeneko eta Kanpoko Desfibriladore Automatikoari buruzkoa, eta Uretako Sorospenearen ingurukoa. Lehenengoa otsailaren 8tik 25era artekoa izango da; bigarrenak, berriz, otsailaren 28tik apirilaren 16ra arte iraungo du. Arriluzeko egoitzan izango dira, eta biak egiten dituzten pertsonak aukera izango dute datorren udan Bizkaiko hondartzetan lan egiteko deitzen diren probetara aurkezteko.

Prezioen eta ordutegiaren gaineko informazioa lortzeko interesa dutenek Arriluzeko egoitzara bertara joan beharko dute, edo telefonoz deitu. ◀

harremanetarako: 944 609 295



Sei egunetako inauteriak gozatzeko aukera izango dute getxoztarrek.

# Animaliak eta garai historikoak, Algorta eta Romoko mozorro gaiak

Hilaren 5etik 14ra bitartean, Algorta eta Itzurbaltzetako auzotarrek inauteriaz gozatzeko aukera izango dute; auzo biek gai tematiko bana proposatu dute mozorroetarako.

Urtebete igaro ostean, dena prest dago Getxon mozorroren festarako. Itzurbaltzeta/Romon eta Algortan ospatuko dituzte inauteriak, bi auzotako ume, gazte eta nagusi guztien gozamenerako. Itzurbaltzetarrek animaliez mozorrotzeko proposamena dute, auzoan mota askotako animalia «askeak» irudikatzen. Algortan, osteran, garai historiko ezberdinak gogoratzeko aukera izango dute, historiari erreparatu sakona emateko asmoz.

Ospakizunak hilaren 5ean hasiko dira, eskola-inauteriak. Egun horretan, Algorta-Andra Mariko eta Itzurbaltzeta/Romo-Areetako ikasleek udalerriko kaleak hartuko dituzte, kalejiran.

Hurrengo egunean, hilaren 6an, aipatutako bi auzotako herritarrez osatutako batzordeek antolatutako inauterietan hasiera emango zaie, Itzurbaltzeta/Romon eta Algortan. Romon, Jai Batzordeak, Itzurbaltzeta gaztetxeak, Zasi Eskola Dantza Taldeak, Ziztu Bizian Eskaut Taldeak eta auzoko elkarrekin boliviarrak antolatutako aratusteak izango dira; zapatu osoa hartuko dute. Algortan, berriz, adin guztiei zuzendutako ekimenak egingo dituzte, asteakaburua honetan eta hurrengoan, bost egunez, guztira; Algortako Jai Batzordeak antolatuta.

Hala, atzera kontua hasi da mozorroa aukeratu eta prestatzeko; denak balio du: josi, erosi, eskatu... ◀

## Egitaraua

### Otsailak 5, barikua

**Goiz osoan**, Eskola-inauteriak Algorta-Getxon, eta Areetan-Itzurbaltzeta/Romon. Kalejira, musika...

### Otsailak 6, zapatua

**12:00-14:30** Haur-jolasak eta tailerrak, Santa Eugenia plazan.

**12:30** Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Algortako kaleetatik.

**13:30-15:00** Umeen mozorro lehiaketa, Santa Eugenia plazan.

**14:00** Boliviako 2. Integrazio Inauteri folklorikoaren hasiera, Bizkaiko Zubiko plazan kontzentrazioa, eta ondoren kalejira.

**15:30** Herri-bazkaria, Santa Eugenia plazan.

**16:15** Boliviako Inauterien dantzak, Santa Eugenia plazan.

**18:00** Txokolatea, Cervantes plazan.

**18:30** Kalejira eta mozorro-desfilea batukadagaz, Itzurbaltzeta/Romoko hainbat kaletan.

**20:00-21:00** Umeen erromeria: Honat taldeagaz; Santa Eugenia plazan.

**22:00** Nagusien erromeria: Honat taldeagaz, Santa Eugenia plazan.

### Otsailak 7, domeka

**12:30** Euskal inauterietako kalejira, Agurra Dantza Taldeagaz; Algortako kaleetatik.

### Otsailak 12, barikua

**17:00** Umeentzako tailerrak, San Nikolas plazan.

**18:30** Umeentzako txokolate-banaketa, San Nikolas plazan.

**19:00-21:00** Umeentzako disko-festa eta dantzaldia, San Nikolas plazan.

### Otsailak 13, zapatua

**12:00** Talde-argazkiak, San Nikolas plazan.

**13:00** Umeen eta gurasoen kalejira fanfarreagaz, San Nikolas plazatik abiatuta.

**13:00** Kuadrillen poteo animatua, Algortako kaleetan.

**15:00** Kuadrillen mozorro-bazkaria, San Nikolas plazan.

**16:30** Bazkaloste animatua.

**18:30** Kuadrillen kalejira, San Nikolas plazatik abiatuta, hainbat kaletan.

**20:00** Karaokea, San Nikolas plazan.

**22:00** Mozorroren sari-banaketa, eta osteran, Dj Bull, San Nikolas plazan.

### Otsailak 14, domeka

**11:30** Puzgarriak, San Nikolas plazan.

**13:00** Txistor-jana, San Nikolas plazan.

**14:00** Kuadrillen txapelketako bideo-muntaia.

**GetxoGas**

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epemuga)

**ITXASGANE**

prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA  
Arituzte z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**KONTXI ZUZUBISKAR**

URDAITEGIXA

Kalitatezko elikagaiak zure mahain

Alangobarri 10, ALGORTA. Tf: 94 491 02 93

**GURE ETXEA** taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

**EKIN** Jatetxea

Bolue 4, Algorta - 94.608.04.62

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra  
- Ortodontzia  
- Periodontzia  
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fritu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1  
Tf. 94 430 22 13  
GETXO



Erando

# Batzar Nagusiak udalakaz bat datozen aireportuaren inguruan



Ordutegia luzatzeak loaren nahasmendua eragin dezake auzokideengan.

Loiuko aireportuaren ordutegiak luzatzeari uko egitea eskatu diote Bizkaiko Batzar Nagusiek AENA enpresari, neurri hori «ingurumenen izango duen inpaktua» dela-eta. Vueling konpainiak egin zuen ordutegiak zabaltzearen eskaria, baina Batzar Nagusietako alderdi guztiak horren kontra agertu dira. EAJ eta PSE-EEk aurkeztutako iniziatibak EH Bilduren hainbat zuzenketan onartu ditu. Alderdi guztiek Loiuko aireportuaren garrantzia nabarmen-

du dute, baina kaltetutako udalerrien babesa jaso ezean, ordutegia aldatzeko erabakia ez hartzeko eskatu dute. Izan ere, gogoratu dutenez, gaueko eta goizaldeko hegaldien zaratek kalteak eragiten dizkiete aireportutik gertu dauden udalerrietako auzotarrei; berbarako, loaren nahasmendua, eta, ondorioz, herritarren atsedenera zein ongizateari kalte egiten die. Era berean, behin-behineko neurri horrek eragin dezakeenari buruzko ingurumen-txostena, AENAz gain, Eusko Jaurlaritzak

ere zuzentzea eskatu du Zigor Isuskiza EH Bilduko batzarkideak. Joaquin Colmenero sozialistak, berriz, gogoratu du aireportua «bere kapazitatearen mugatik hurbil» dagoela. Zuriñe Argatxa jeltzaleak «egutegiak zabaltzea auzokideen loaldia murriztea dela» adierazi du, eta edozein aldaketa eurakaz eztabaidatu beharrekola dela azpimarratu. Jesus Isasi popularrak, azkenik, akordura ekarri du, guztira, «20 edo 25 udalerrri» direla kaltetutakoak, «modu batean edo bestean». Erandioko Udalak urrian azaldu zuen ez zegoela ados ordutegia zabaltzearen erabakiagaz, eta Udal Gobernuak izandako jarrera hori berretsi zuen Udalbatzak, ia aho batez.

## Bidaia ugari, 2015ean

Loiuko aireportuak 4.277.430 bidaiari hartu zituen 2015ean. Hala, markarik onenetik gertu gelditu zen iaz; izan ere, 2007an 4.286.751 bidaiari hartu zituen (9.321 gehiago), inoizko markarik onena. Hainbat iturriren arabera, konpainia tradizionalen finkatzeari esker, penintsulako iparraldeko erreferentziako aireportua izan daiteke. Nazioarteko hegaldiak %12 igo dira; ohiko trafikoa, berriz, %3,7 handitu da. ◀

# Kaleratzerik gabeko udalerrri izan gura dute

Kaleratzerik gabeko udalerrri izendatzeko Stop Desahucios plataformaren izenean PSE-EEk aurkeztutako mozioa onartu du Udalbatzak, EAJ, PSE-EE, Ganemos Erandio eta EH Bilduren aldeko botoakaz; PP abstenitu egin da. Aurreko batean ere, 2014ko urtarrileko osoko bilkuran kaleratzeak pairatzen zituzten familiak artatzeko mekanismo integralak martxan jartzeko mozioa onartu zuen Udalbatzak. Orduan, ohiko etxebizitza galtzen dutenen behar sozialei erantzuteko konpromisoa hartu zuen Erandioko Udalak, eta hala jarraituko duela azaldu zuen, «kaltetuei gizarte-zerbitzuetan lehentasunezko atentzioa eskainiz». Horrenbestez, Udalak hainbat neurri ipiniko ditu martxan kaleratzeetako kaltetuak artatzeko: hipoteken birtartekaritza-zerbitzura bideratzea; gizarte-larrialdiko laguntzak eskaintzea; beharra duten kaltetuak Osakidetzako osasun Mentaleko Zentrora bideratzea; udal zergen ordainketak atzeratzea; edo larrialdietarako udal etxebizitzak eskaintzea. «Konpromiso horiek indarrean daude, eta horrela jarraituko dugu», adierazi du Elena Perez Gizarte Ekintzarako Batzordeko delegatuak. ◀

# Kalezuloko gazteek protesta egin dute udal bilkuran

Iragan urtarrilaren 28ko osoko bilkurara hurbildu ziren Kalezulo gazteetako hainbat kide, eraikin autogestionatuaren egoeraren berri ematera, eta, bereziki, aurreko egunetan Udalak adierazitakoari erantzuteko. Izan ere, Erandioko Gazte Asanbladak Udal Gobernuari leporatu zion urte hasieran herriko gazte biren aurkako auziaren eta gaztetxea ixteko saiakera baten atzean egotea. Ostera, Udalak gezurtatu egin zituen baieztapen horiek, HIRUKARI igorritako bost puntuko komunikatu labur batez. Horren harira, gaztetxeko kideek aitortu dute salaketa ez duela Udalak jarri, baizik eta «erakinaren ondasunak kudeatzen dituen gestorak», baina «Udalaren presio eta eskakizunen ondorioz» izan dela gaineratu dute. Udalak esan gaztetxearen kontra ez dagoela esan arren, eta gauzak «ondo» egitearen alde dagoela, gazteen ustez «administrazio horrek ez du interesik zein errespeturik izan, eta, ondorioz, gazteon proposamenek ez dute ganorazko erantzunik jaso inoiz».



Bi gazte auzipetuta daude gaur egun.

Gainerako puntuen harira, jakinarazi dute lau urteotan ez dutela jaso inolako proposamenik, eta Udalak ez duela «erreferentziako» eredu zein aukerarik bultzatu, nahiz eta Udalak adierazi eurakaz lan egiteko prest dagoela. Jarrera «prebentiboari» lotuta, gainera, galdera bota dute gazteek: «prebentiboa da udaltzainek gaztetxearekiko egindako lekuz kanpoko jarraipena?». Azkenik, gaztetxearen proiektua «errealia eta beharrezkoa» dutela iragartzeaz gainera, Udalagaz batera gatazkaren muinaren gainean lan egiteko prestasuna agertu dute Kalezuloko kideek. ◀

# Mozorroak prest dituzte Erandioko bazter guztietan

Ohi baino lehenago helduko dira Aratusteak Erandioko auzo guztietara. Hala, Altzaga, Astrabudua eta Erandiogoikoko auzokideek urtebetez buruan bueltaka izan duten mozerroa janzteko aukera izango dute hila- ren 5etik 7ra. Erandioztarrek musikaz, dantzaz eta jolasez gozatzeko aukera izango dute herriko bazter guztietan. Berbarako, hilaren 5ean, El Puntillo Canalla taldeak Altzagako kaleak animatuko ditu 13:00etatik aurrera. Arrastian, berriz, umeen eta nagusien mozerro-lehiaketak egongo dira Altzagan, 17:00etan eta 19:30ean, hurrenez hurren. Zapatuan, mozerroen lehiaketak Astrabuduan izango dira, aurreko eguneko ordu berean. Horrez gainera, kaleko animazioa, txokolate-dastaketak eta talde-argazkiak egongo dira, besteak beste. Erandiogoikoara, azkenik, zapatuan helduko dira mozerroak. Umeentzako jardueraz gainera, dantza-erakustaldiak eta lehiaketak egongo dira, besteak beste. ◀



Mota askotariko mozerroak egongo dira.

## Ekitaldi batzuk

### Otsailak 5, barikua

18:00 Askaria, musika, dantza, eta tostada-lehiaketa, Emakumeen elkartearen (Altzaga).

11:00-14:00/16:00-18:00 Umeentzako jolasak, Azoka zaharra (Altzaga).

13:00 Kaleko animazioa, Altzagan.

18:30/19:30 Inauterietako entzunaldiak, Josu Murueta kultur etxean (Astrabudua).

### Otsailak 6, zapatua

18:00-20:00 Goi Alde Dantza taldearen ikuskizuna, Euskadi plazako karpaa (Erandiogoikoa).



## Leioa

# Aratusteez gozatzeko aukera dago aste-akabuan eta martitzenean

**Udal erakundeagaz batera**, MUGI Leioako Gazteak eta Maritxu Teilagorri elkarteak dabiltza ospakizunak antolatzen; ume zein helduentzako jarduerak egongo dira.



Mozorro-lehiaketa bi egongo dira: bata, helduentzat, eta bestea, umeentzat. © KULTUR LEIOA

Leioa erdigunean, egun bitan egoten dira inauteriak ospatzeko ekitaldiak: zapatuan eta martitzenean. Aurten, hilaren 9a jai-eguna izateaz gainera, aurreko aste-akabu osoan egongo dira umeentzako eta gazteentzako jolasak, ikuskizunak, mozorro-lehiaketak, dantzaldiak, eta abarrak. Izan ere, aratusteez biziberritzeko asmoz, Udalaren Kultura eta Gazteria Saila, MUGI Leioako Gazteak eta Maritxu Teilagorri elkarteak elkarlanean dabiltza aurten. Martitzenean egingo dira Umeen Aratusteez.

## Otsailaren 13an, Txorierrin

Erdigunean ez ezik, Leioako beste hainbat auzotan ere prestatu dituzte ospakizunak. Besteak beste, Txorierrin, disko-festa (18:30etan) eta txokolatada (20:00etan) egingo dituzte otsailaren 13an, zapatua. ◀

## Egitaraua

### Otsailak 5, barikua

17:00 Ume eta gazteentzako parkea, Ikea Barri plazan. Euria bada, Bulevarden.

19:30 *Karanba* haur-ikuskizuna, Ikea Barrin.

### Otsailak 6, zapatua

12:00 Umeentzako jarduerak (ginkana eta talde-argazkia), Euskal Etxeen plazan.

19:00 Disko-festa, Xaiborregaz, Ikea Barrin.

19:00 Poteoa. Mozorro-lehiaketako probak.

21:00 Mozorro-lehiaketako desfilea, Ikea Barri plazan. Musika eta animazioa.

22:00 Gelo Fuentesen bakarriketak, Ikea Barri plazan.

23:00 Mozorro-lehiaketaren sari-banaketa.

00:30 Disko-erromeria, Xaiborregaz, Ikea Barri plazan.

### Otsailak 7, domeka

17:00 Valen magoaren ikuskizuna, Ikea Barrin.

### Otsailak 9, martitzena

11:00-14:00 Haur-parkea, Kandelazubietan.

12:30 Dantza-ikastaroa.

16:30-20:30 Haur-parkea, Kandelazubietan.

17:30 Disko-festa.

18:30 Umeen mozorro-lehiaketaren desfilea.

19:00 Sari-banaketa.

info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

## Aurrekontuak onartu dituzte EAJ eta PSE-EEren botoakaz

Urtarrilaren 28ko osoko bilkuran onartu zituzten Leioako Udala-ren 2016ko aurrekontuak, EAJk eta PSE-EEK alde bozkaturak. Maiatzaren 24ko udal hauteskundearen ostean, hitzarmena izenpetu zuten alderdi biek. Juan Carlos Martinez Llamazares sozialisten bozeramaileak nabarmendu duenez, horren ostean, Leioako EAJk eta PSE-EEK hitzartzen duten lehenengo kontu-proposamena da onartutakoa; bere berbetan, «herriko eta auzoetako behar nagusiei erantzuten diete aurrekontu horiek». Aurka bozkatu zuten oposizioko talde denek (Esnatu Leioa, EH Bildu eta PP); ez dotoz bat horregaz. Besteak beste, EH Bilduk aipatu duenez, «leioaztarren parte-hartze barik, EAJ eta PSE-EE alderdiek taxututako 2016rako aurrekontuek, murrizketa garrantzitsuakaz etortzeaz batera, ez dute balio izango Leioak aspaldidanik dituen gabezia orokor zein arlokoak aurre egiteko».

Onartutakoaren arabera, aurtengo aurrekontu bateratua 35.406.942,50 eurokoa da; 2015ean baino %1,72 handiagoa. Leioako Udalak 33.962.901,32 euroko aurrekontua edukiko du; Soinu Atadia Fundazioa (Leioako Udal Musika Eskola) erakunde autonomoak, 2.201.603,00 eurokoa; eta Euskararen Erakundeak (Mastitxu Udal Euskaltegia), 1.090.157,29 eurokoa. ◀

## Aurrekontuak 2016

### Sarrerak

Zuzeneko zergak	7.593.615,13 €
Zeharkako zergak	231.592,00 €
Tasak eta bestelakoak	6.179.538,54 €
Transferentzia arruntak	19.371.727,48 €
Ondare-sarrerak	419.936,64 €
Inbertsio errealen besterentzea	782.532,71 €
Kapital-transferentziak	828.000,00 €
<b>Denera:</b>	<b>35.406.942,50 €</b>

### Irteerak

Pertsonal gastuak	13.301.244,77 €
Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	17.710.175,43 €
Interesak	6.506,00 €
Transferentzia arruntak	1.758.034,55 €
Gastu orokorra eta ezustekoak	85.000 €
Inbertsio errealak	2.445.981,75 €
Kapital-transferentziak	100.000,00 €
<b>Denera:</b>	<b>35.406.942,50 €</b>

## Bi mila euro banatu dituzte Udalak eta Guipuzcoanok

Julia Fernandez Garcia leioaztarrek eta Fernandez Baranda botikak irabazi dute SabadellGuipuzcoanok Gabonetan martxan jarritako *Leioan sinisten dugu* kanpainaren saria; herriko dendetan erosketak egiteko 1.000 euroko txeke bana jaso zuten bakoitzak. Sariak banatzeko ekitaldia urtarrilaren 28an egin zuten, udaletxean; bertan egon ziren Mari Carmen Urbieta alkaitea eta Fernando Rioja SabadellGuipuzcoanoko eskualdeko zuzendaria.

Denera, Leioako 100 saltokik egin zuten bat kanpaina horregaz. Azaroaren 1etik 30era, denda horietan egiten zen erosketak bakoitzarengatik, bezeroek zozketan parte hartzeko aukera zeukaten, establezimenduetan ipini ziren postontzietan datu pertsonalak sartuz. Horrez gainera, SabadellGuipuzcoanok Leioan daukan bulegoan Javier Mariscal artista valentziarrak diseinutako 3.000 poltsa ekologiko inguru banatu zituzten, doan. ◀



**Bakearen alde, puxikak** askatu zituzten herriko kaleetan, joan den domekan, urtarrilak 31, Askartza Claret ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek. Beste hainbat hezkuntza-zentro erlijiosotako lagunakaz batera, ibilaldia egin zuten eguerdian San Juan elizatik Bulevardera.



## Leioa



Besteak beste, Kultur Leioan eta Kurkudi herriko tabernan jaso daitezke estreinaldira joateko gonbidapenak.

# «Nortasuna suntsitzea du helburu torturak»

**Olatz Barrenetxea Larrondo** psikologo sopoloztarrak Erika Bilbao Barcenak salatutako torturez berba egiten du *Atera gabeko arantzak, garbitu gabeko zauriak* dokumentalean; Leioa Libre ekimenak otsailaren 11n estreinatuko du, 19:30ean, Kultur Leioan.

## KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

**M**aiatzaren 17an hasiko da Erika Bilbaoren kontrako epaiketa, Espainiako Auzitegi Nazionalean; Ekin erakundeko kidea izatea egotzita, 9 urteko espetxe-zigorra eskatzen dute. «Guardia Zibilaren eskuetan tortura basatiak» jasan zituela salatu zuen leioaztarrak.

### Zein da dokumentalaren helburua?

Torturak dauzkan arantzak zauri batzuk sortzen ditu barrualdean; horiek

garbitzeko behar den prozeduraz hitz egitea da dokumentalaren helburua. Torturak pertsonengan dauzkan eraginak tabu izan dira historikoki; horrekin apurtu nahi dugu. Izan ere, eragin horiei buruz hitz egiteak zauriak osatzen laguntzen du.

### 'Tortura' berba aipatzen denean, zeri buruz ari gara?

Batetik, deklarazio polizialak lortzea da torturaren helburua; bai zure burua erruduntzat jotzeko, bai besteren bat erruduna izatea leporatzeko. Baina, ez hori bakarrik. Torturaren me-

todologia bera eta atxiloketa-orduak zelan joan diren ikusita, pertsonaren identitate militante, soziala eta pertsonala apurtzea bilatzen dute horrelako praktikek.

### Zein ondorio izan ditzake torturak?

Ondorio asko daude; sintoma traumatikoak izaten dira askotan: amesgaiztoak, babesgabetsun-sentsazioa, barru-barruan sartutako beldurra... Torturatutako lagun asko urduri jartzen da ateen zaratak, tinbreak, telefono-deiak edo oihuak entzutean; hila beteak irauten duten sintomak dira,

baina denboraren poderioz, murriztu eta horietako batzuk desagertu ere egiten dira.

Horiez gain, identitatean eta bizitzarekiko balioetan aldaketak egoten dira: lehen, pertsona ausarta zenak, gero, segurtasun-falta sumatzea; afektibitate-mailan mesfidantzak eta beldurrak izatea; alai egoteko arazoak izatea... Identitatearen eta pertsonalitatearen ezaugarri batzuk aldatu egiten dira askotan; Erikak ondoko esaldia aipatzen du: «Ni ez naiz 2010eko irailaren 14an oheratu zen emakume hura».

### Salatzea ere beharrezkotzat duzue.

Torturaren ondorioak gainditzeko beharrezkoa da bizi izandakoa azalaraztea, baita tortura horiek salatzea ere. Batzuek ez dute epailearen aurrean salatu, ausartu ez direlako edo pentsatzen dutelako ez duela merezi. Hala ere, salaketa judizialarekin batera, salaketa soziala joan behar da; hori da dokumentalaren helburua. Tortura zer den eta zer eragin daukan gizarteratzea salaketa-modu bat ere bada; ez bakarrik epaitegietara jotzea.

Gauza biak dira beharrezkoak. Torturak jasan dituzten lagunek urteetan gertatutako horien aitormena beharrezkoa dute; horrek sortzen dien mina eta torturek eragindako trauma gainditzeko.

### Orain arte zelako emaitzak eman ditu salaketak?

Salaketa judizialak oso gutxi; normalean artxibatu egiten dira. Gizarte-mailako salaketari dagokionez, orain ari zaio arreta jartzen torturak pertsonengan daukan eraginari. Izan ere, torturak pertsonengan zer min sortzen duen ulertaraztea lortzen badugu, norbanakoen arteko elkartasuna eta hurbiltasuna lantzeko aukera egongo da; horrela bada, torturaren kontrako erantzun bat emango da. Horretarako, pedagogia apur bat beharrezkoa da; horretan gabiltza. ◀



Gai (des)ordena

LOHITZUNE RODRIGUEZ AURREKOETXEA  
Filosofian lizentziatua

## Ikus-entzunezkoak euskaraz

Iragan asteartean Villamonteko kulturaren izan ginen euskarazko film laburrak ikusten, Egizuren eskutik. Emanaldia hasieratik gozatzeko garaiz heldu ez arren, barreari eutsi ezinik ibili nintzen azken bi filmetan zehar. Onak! Umorea, estetika, musika, kultur erreferentziak... eta horiek guztiak aurrekontu txikiekin, nabaria zenez.

Tira, orduan, zergatik hainbeste zabor euskarazko telebista-kate bakantetan? Zergatik ez ditugu horrelako edukiak doako euskarri eskuragarrietan topatzen? Esan gabe doa, teknologiaren garaian, ikus-entzunezkoak hizkuntza normalizazioaren ezinbesteko pieza direla. Bada, zeren zain gaude? ◀

## Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)  
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



## Sopela



Urko kiroldegian egingo dute inauteri-festa handia domekan. SOPELAKO UDALA

# Aratuste goiztiarrak ospatzeko, dena prest!

**Inauterietako kalejirez, jaiez** eta mozorro-lehiaketaz gainera, Kurtzio kultur etxean antzerkia izango da: *Txanogorritxo* lana antzetzuko du Glu Glu taldeak, zapatuan.

**A**urten goiz heldu dira aratusteak, aste-akabu honetan ospatuko dugu urteko jairik zoroenetakoa. Horrenbestez, mozorroa prest daukazu?

Sopelan, barikuan hasiko da festa, otsailaren 5ean. Meñakoz elkarteak eta Sopelako Panderojoleak taldeak kalejira egingo dute pilotalekutik abiatuta, 19:00etan. Hurbildu mozorroagaz eta ondo pasatzeko gogoz! Mozorroetarako gaia librea da aurton; zer gura

duzun, haxe jantzi eta irten kalera. Zapatuan, osteran, kultur etxean antzerki polita ikusteko aukera izango da: *Txanogorritxo*, Glu Glu konpainiarena. Ipuin klasikoaren moldaketa da. Azpimarratzekoa da lanak izango duen ukitu musikala; dantzek eta abestiek Txanogorritxo lagunduko dute basoko bide ahaztezin, arriskutsu eta dibertigarrian. Izan ere, jolastea ezinbestekoa da, baina begiak adi edukitzea beharrezkoa da beti. Emanaldia 18:00etan

hasiko da eta sarreren prezioa hau da: 3 € (umeak) eta 5 € (helduak).

Amaitzeko, domekan, inauteri-festa handia antolatuko dute Urko kiroldegian. Musika, barreak eta dantza... ederto pasatuko dugu! Mozorro-desfilea 18:00etatik 19:00etara bitartean egingo da, eta mozorrorik onenak sarituko dira, hainbat kategoriatan: 0-6 urte eta 7-12 urte bitarteko mailak (1. eta 2. sariak 40 euro, Ingenioso dendan erosteko). Taldeka, berriz, honela izango da: 1. saria, 160 euro; eta 2. saria, 100 euro. Desfilea Xaiborrek animatuko du, Euskal Zumba Festagaz. Gainera, *tablet* bat zozkatuko dute. Zoro izan eta ederto pasa! ◀

## Udal gobernuaren «kudeaketa eskasa» salatu du EHBilduk

Sopelako EHBilduk salatu du Udaleko lorezaintza-zerbitzua «bertan behera gelditu» dela, «EAJren kudeaketa eskasaren ondorioz».

Koalizioak azaldu duenez, «EAJ-PSEko udal gobernuak ez du oraindino martxan ipini Sopelako lorezaintza-zerbitzua esleitzeko lehiaketa», eta «horren ondorioz, urtarrilaren 20az geroztik ez dugu lorezaintza-zerbitzurik herrian». Horregatik, udal-gobernuaren «eraginkortasunik eza» salatu gura izan du: «batez ere, aurreko legegintzaldi osoan zehar EH Bilduri leporatu ziotenean gobernatzeko gaitasunik eza». Horrez gainera, era berean, zerbitzua eskaini duen enpresako langileen egoeragaz «arduratuta» dagoela adierazi du. Koalizioak espero du, kontratua etenagatik, «etorkizunean zerbitzua esleituko zaion enpresan euren lana subrogatzeko arazorik ez sortzea». ◀

info+: [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

## Agate Deuna bezperan, kalez kale koplak abestera!

**G**aur, otsailak 4 eta eguena, Agate Deuna bezpera da; horrenbestez, aurten ere, ohiko kantu lehiaketa egingo da. Goiz eta arrastiz izango da lehiaketa, eta kategoria bi ditu: A maila (18 urtera artekoentzat) eta B maila (18 urtetik gorakoentzat). Kategoria bakoitzean, sari bana emango dute: A mailan, 150 eurokoa, eta B mailan, 250 eurokoa. Horretarako, ondoko leketan abestu beharra dago: Urgitxietan plazan 12:00etan, edo udaletxeko plazan 18:00etan, baita taberna hauek ere: Laiak, La kala, Urbaso, Setien, Señe eta Irubide. Kantariak baserritarren jantzi tradizionalak eroan behar dituzte soinean. ◀



### Haur Hezkuntzatik Batxilergora

Gatzarriñe bidea 47, Sopela  
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28  
[info@anderdeuna.eus](mailto:info@anderdeuna.eus)  
[www.anderdeunaikastola.eus](http://www.anderdeunaikastola.eus)



### ARTOLOZAGA Anaiak Tailerrak

Mekanika, karrozeria, elektronika

Sopelan  
Gatzarriñe, z.g.

94 676 00 13

94 676 38 14

[www.talleresartolozaga.com](http://www.talleresartolozaga.com)

Sestaon

Miguel Servet, 6

94 472 13 74



Jatorrizko bermea mantentzen dugul!



## TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf. 94 676 07 15



## Gorliz



Gorlizko Ikastetxea hobetzera, 190.000 euro bideratuko dituzte.

## Aho batez onartu dituzte aurrekontuak

Gorlizko Udalak aho batez onartu ditu 2016rako proposatutako aurrekontuak. Hala, zenbateko osoa 6,5 milioi eurokoa izango da, aurreko urteko kontuak baino %1,74 gutxiago, «hau da, 115.000 euro gutxiago», Itxaso Martin Ogasun zinegotzi jeltzaleak jakinarazi duenez. Hala ere, murritzeta horren aurrean, Udalak «oreka finantzarioa du, egoera ekonomiko onuragarriarekin, zerbitzuen kalitatea mantendu eta beharrian guztiak betetzea ahalbidetzen duena», azaldu dutenez. Hori horrela, Gorlizko Ikastetxeak garrantzi nabarmena izango du aurten; izan ere, aurrekontuen 190.000 euro bideratuko dituzte azpiegitura hori hobetzeko. Hala, patioa ixteko lanetarako 140.000 euro, eta gainerakoa bestelako konponke-

ta-obra batzuetarako erabiliko dute. Hirigintza Sailak, berriz, 320.700 euroko kontu-saila izango du, iaz baino %15,88 gutxiago, «baina azpiegiturak hobetzen jarraitzeko ahalbidetuko duena», Ekonomia Saileko arduradunaren berbetan. Halaber, 44.000 euro bideratuko dituzte HAPOaren berrikusketarako, besteak beste.

Aurreikusitako bestelako proiektuen artean, euskara promozionatzeko eta kultura-jarduerak bultzatzeko 88.950 euro erabiliko dituzte. Bertintasun Sailak 15.000 euro jasoko ditu, eta legealdi berrian sortutako Gardentasuna eta Herriarren Parte-hartze Sailak 10.000 euro izango ditu. Azkenik, familia behartsuenek Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko laguntzak izango dituzte, beste urtebetez. ◀

## Mozorro eta tostada onenaren bila

Mozorro-jaia ate joka dago Gorlizen, eta gorliztarrek besoak zabalik hartuko dituzte aratusteetarako jantziak. Aurten, 5 eguneko inauteriak izango dira udalerrian, hilaren 5etik 9ra arte, hain zuzen ere. Lehenengo egunean, barikuan, kalejira eta dantzak abiatuko dituzte Eliz plazatik, 19:00etan, eta ondoren, 19:30ean, txokolate beroa banatuko dute Ibarreta plazan. Hurrengo egunean, zapatuan, gerriondoak astintzeko neska-mutilentzako disko-festa egin eta txokolate beroa emango dute, Ibarreta plazan, 18:00etatik aurrera. Egun osoan talde-argazkiak ateratze-

ko aukera egongo da Goskoa tabernan. Domekan, berriz, inauterietako tostada gozoenaren bila joko dute gorliztarrek. Horretarako, Inauterietako VII. Tostada Txapelketa antolatu dute, 13:00etatik aurrera, Ibarreta plazan. Hilaren 8an, astelehenean, munduko inauteriak ezagutzeko aukera izango dute ludotekako neska-mutilek. Izan ere, 11:00etatik 13:00etara gura duten gaztetxoak kultur etxera joan ahal izango dira, mozorrotuta. Amaitzeko, martitzenean, mozorrotako maskarak eta osagarriak egiten ikasteko aukera izango dute ludotekara doazen umeek, kultur etxean. ◀

## De Andresek zinegotzi izateari utzi dio

Arazoi pertsonalak direla-eta, Gorlizko Independenteak Taldeko (GIT) Maria Victoria de Andres Ayok zinegotzi izateari uzteko erabakiaren berri eman zuen urtarrileko osoko bilkuran. Udalbatzak aho batez onartu zuen borondatezko erabaki hori, eta egindako lanagatik «eskerrik beroena» eman zioten. Arantza Etxebarria alkateak aitortu zuen «udal politikarako balio handikoa» izan dela, eta egoera pertsonala «hobera» doanean «Gorlizen alde lan egitera bueltatzeko» desioa helarazi zion. EH Bildukoek, bestalde, «penaz» hartu dute erabakia. Kontuak hala, GITeko Luis Manuel Lorenzo Diezek hartuko ei du ardura. ◀

## Txosna-baimenak eta Dastatu Gorliz

Udako jaietan txosna ipini gura duten taldeek eta elkarteek baimena eskatu beharko dute otsailaren 29a baino lehenago. Horretarako, Gorlizko Kultur Etxeagaz harremanetan jarri beharko dute, lanegunetan, 09:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

Bestalde, Kultur Etxeak, halaber, Dastatu Gorliz egitasmoaren hurrengo jarduera antolatu du hilaren 12rako, barikuan. Egun horretan, parte hartzen duten guztiak «Ogi likidoa, ogi solidoa» izeneko jardueragaz gozatu ahal izango dute Sagastikoetxan dagoen Noho jatetxean, 19:30etik aurrera. Horretarako, interesatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte. ◀

## Plentzia

## Berbaldiak, tailerrak, zinema eta inauteriak, Danontzat gaztetxean

Urtetik berrirako ikastaroak martxan ipintzeaz gainera, hasi berri dugun hilerako egitarau oparoa prestatu dute Plentziako Danontzat gaztetxeak. Hilaren 4an, egunean, emango diote hasiera ekitaldi-zerrendari, Ahoztar Zelaietaren azken lanaren aurkezpenagaz: ikerketa-kazetariak *Kutxabank, el saqueo de Euskal Herria* izeneko liburuaren nondik norakoak azalduko ditu, 19:30etik aurrera. Astebete beranduago, hilaren 12an, trikimailuak eta akrobaziak egiten ikasteko zirku-tailerra egingo dute, 19:00etatik 21:00etara. Hurren-

go egunean, zapatuan, gune autogestionatua txukuntzeko eta beharrezko gauzak konpontzeko auzolanak egingo dituzte, arrastiko 05:00etatik aurrera. Hilaren 14an, domekan, umeentzako ordua helduko da. Egun horretan, *Haran zabaleko gorabeherak* gaztetxeentzako filma proiektatuko dute, 17:30etik aurrera. Uribe Kostan, mozorrotzen azkenak izango dira plentziarrak, gaztetxean behintzat. Izan ere, otsailaren 20an egingo dituzte inauteri tematikoak. Festa horren 8. edizioa egingo dute aurten, 13:30etik aurrera, gaztetxean bertan. ◀

### Otsailak 4, eguna

19:30 *Kutxabank, el saqueo de Euskal Herria* liburuaren aurkezpena.

### Otsailak 12, barikua

19:00-21:00 Zirku-tailerra.

### Otsailak 13, zapatua

17:00 Auzolanak.

### Otsailak 14, domeka

17:30 Umeentzako zinema: *Haran zabaleko gorabeherak*.

### Otsailak 20, zapatua

13:30etik aurrera VIII. Inauteri Tematikoak.

## Google Drive ikastaroa, otsailaren 16an, Goñi Portalen

Google enpresak fitxategiak gordetzeko eta partekatzeko sortutako Drive zerbitzua behar bezala erabiltzen ikasteko kurtsoa antolatu du KZ Guneak. Ikastaroa hilaren 16an izango da, martitzenean, Barria kaleko 2. zenbakian dagoen Goñi Portalen, 12:00etatik 14:00etara. Bertan, sareko memoria-zerbitzuak eskaintzen dituen aukera guztiak eta horren inguruko trikimailuak ezagutu eta horiek gure egunerokoan modu eraginkorrean erabiltzen ikasiko dute parte hartzen duten denek. Horretarako, aldeztu aurretik izena eman beharko dute. Leku-kopurua mugatua da; hala, izen-emate epeak lekuak bete arte iraungo du. ◀





B aldea

UNAI  
BREA GONZALEZ  
Argiako kazetaria

Ipuin honetan ere otsoak galtzaile

**B**ehin batean, nire alabek bat kexatu egin zitzaidan ipuinenamairan otsoa hiltzen zutelako. Ea ez ote zidan otsoak penarik ematen; ea ez ote zuen hark ere ume txikirik edukiko, gurasoa akabatu zitelako triste. Zergatik hil behar zuen beti otsoak? Bistan da nire alabak agertutako sentiberatasuna ez dagoela oso zabaldua euskal erakunde publikoetan. Azken adibidea Bizkaiko Foru Aldundiaren aginduz berriki Karrantzan egindako otso-ehizaldiak izan dira. Euskadiko Otso Taldeak salatu du Euskal Herriko azken populazio egonkorra desagerrarazi dutela horrekin. Arazoak ez dauka soluzio errazik. Biodibertsitatean adituak diote otsoak ezinbestekoak direla ekosistemetan. Lehen sektoreko ordezkariak, berriz, kexu dira haien erasoez (otsoenez, ez adituenez). Eta ingurumenarekiko begirune handiena izan ohi duten abeltzainak dira, hain zuzen, otsoen kontrola ozenen eskatzen dutenak. Artaldeek jasandako sarraskiak ez ei dira bateragarriak abeltzaintza eredu estentsiboarekin, hau da, eredu jasangarri eta, horrela esan dezadan, *ekologistenarekin*. EHNE-Bizkaia sindikatuak eskatu du Hego Euskal Herria otso bako eskualde izatea, Iberiar penintsulako beste leku batzuetan espeziea goraka doala eta beraz arriskuan ez dagoela argudiatuta. Ringaren beste aldean, Otso Taldeak eta pare bat dozena talde ekologistak Eusko Jaurlaritzari galdegin diote otsoa Mehatxatutako Espezieen Katalogoan sartzeko. Abeltzainei lagundu bai, baina ez otsoen lepotik. Erakundeen jarrera historikoa –eta ipuinek islatutako pentsamolde tradizionala– ikusita, zintzoki pentsatzen dut jai dutela otsoentzako babes gura dutenak. Hala ere, 45.000 sinadura baino gehiago lortu dituzte. Nire alabaren jarraitzaileak uste baino gehiago dira, agidanez. ◀

Barrika

# Makilak, mozorroak eta tostadak, egunotan



Eguraldia lagun izanez gero, frontoian ospatuko dituzte inauteriak, hilaren 13an.

**Agate Deuna, inauteriak** eta tostada-lehiaketa egingo dituzte hilaren 6an, 13an eta 15ean, hurrenez hurren.

**O**hi legez, Agate Deuna martiriari gorazarre egiteko eguna atzeratuko dute barrikotzarrek, hilaren 6ra arte, hain zuzen ere. Zapatu horretan, makilak eskuan, lurra kolpatuko dute lozorrotik esnatzeko, eta koplak kantatuko dituzte Agate Deunari gorazarre egiteko. Goizeko 09:00etan ekingo diote bideari, udaletxeko plazatik abiatuta, 15:00era bitartean, 30 txokotatik igaro

eta Agate Deuna kanta-ibilaldia osatuko dute. Ostean, herri-bazkaria egingo dute Batzoki tabernan, 15 euroan.

Astebete beranduago, makilak alde batera utzi, eta mozorroak jantziko dituzte barrikotzarrek. Otsailaren 13an, zapatuan, ospatuko dituzte aratusteak Barrikako frontoian. Festa arrastiko 04:00etan hasiko da, eta iluntzeko 08:00ak arte iraungo du. Tarte horretan, musika-jartzailea,

adin arteari begiratzuz banatutako hiru mozorro-lehiaketa, makillaje-tailerra eta txokolate-banaketa egongo dira, bertaratzen diren guztien gozamenerako. Eguraldi oso txarra eginez gero, jai Jubilatuen Etxean egingo dute.

Mozorroen ajea kendu baino lehenago, gainera, ohikoa den eta ospe handia duen tostada-lehiaketa egingo dute Barrikan. Hilaren 15ean egingo dute norgehiagoka gastronomikoa, udaletxeko beheko solairuan (liburutegi zaharra). Horretan parte hartu gura dutenek egun horretara arte eman ahal izango dute izena. ◀

Uribe Kosta

## Iraunkortasunaren alde egingo dute eskualdeko hainbat ikastetxek

**U**ribe Kostako Txomin Aresti LHI (Leioa), Artatza-Romo BHI (Getxo-Leioa), Larrañazubi HLHI (Getxo) eta Aixerrota BHI (Getxo) ikastetxeak parte hartzen dabilten Aktibatutako ekimenaren laugarren fasean. Eskualdeko eskola horiekaz batera, Busturialdea-Urdaibaiko, Mungialdeko eta Txorierriko beste 15 ikastetxek parte hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren egitasmo horretan.

Aurreko hiru faseetan parte hartu zuten 42 ikastetxeek izandako inplikazioaren ondorioz, ia %20ko aurrezpe-

na lortu da haien energia kontsumoan, baita CO<sub>2</sub> isurietan 2 tonako murrizketa ere. Gainera, programa amaitu ostean, ikastetxe gehienek hobetu egin dute gaikako zabor-bilketa, eta zenbait hondakin-mota murriztu dituzte. Halaber, ikastetxeek hobetu egin zituzten erosketa iraunkorrerako irizpideak, hondakin gutxiago sortzeko.

### Helburuak

Aktibatutako proiektuaren asmoa da energiaren kontsumoa %5 murriztea parte hartzen duten ikastetxeetan;

etxebizitzetan ere energia eta ur kontsumoak portzentaje berean murriztea gura da. Halaber, gaikako bilketa bideratutako edukiontzien erabilera %12 areagotzea eta CO<sub>2</sub> isuriak %7 murriztea dute erronkatzat.

Iraunkortasunaren aldeko egitasmo horren antolatzaileen arabera, programan proposatzen diren ekin-tzak jarraituta, etxeko gastuetan ere %10 aurrez daiteke, eta, aldi berean, «ingurua zein bizi-kalitatea hobetzea lortzen da». ◀





XV. Ipuin eta Narrazio Lehiaketa eta V. Bertsopaper Lehiaketa dira aurtengoak; argazkian, iazko irabazleetako batzuk. ERANDIOKO UDALA

## Oinarriak

### Nork parte har dezake?

Erandioztar guztiek zein Erandioko ikastetxeetako ikasleek.

### Lanak aurkezteko epea

Lehiaketa bietara lanak aurkezteko azkenengo eguna apirilaren 4a izango da.

### Sariak

**Ipuin-narrazioen lehiaketa:** 50-150 euro bitarteko balioa duten txartel-sortak izango dira sariak, udalerriko denda laguntzaileetan erabiltzeko.

**Bertsopaper-lehiaketa:** 100-120 euro bitarteko balioa duten 3 txartel-sorta izango dira sariak, udalerriko denda laguntzaileetan erabiltzeko.

### Informazioa eta oinarriak

**info+:** [www.erandiokoeuskarazerbitzua.com](http://www.erandiokoeuskarazerbitzua.com)

**e-mailez bidaltzeko:** [lehiaketa@erandioko-udala.net](mailto:lehiaketa@erandioko-udala.net)

**Posta arruntez bidaltzeko:**

Euskara Zerbitzua  
Irailaren 23a plaza. 48950 Erandio

# Idazketa-lehiaketak



**Ipuin-narrazio eta bertsopaper** lehiaketetan parte hartzeko epea zabalik dago Erandion; apirilaren 4a ezarri dute lanak aurkezteko azkenengo eguna.

**I**dazteak eta sormenak astia dute beharrezko. Horretarako aukera badute erandioztarrek apirilaren 4ra arte; Erandioko Euskara Zerbitzuak antolatuta, euskarazko prosa eta neurtitz lehiaketak martxan baitaude. «Erandioztar guztiei zein Erandioko ikastetxeetako ikasleei» begirakoak dira lehiaketa biak.

Batetik, XV. Ipuin eta Narrazio Lehiaketan parte hartzeko, adinaren

araberako lau maila daude: 8 urte artekoak, 9-10 urte bitartekoak, 11-13 urte bitartekoak, eta 14 urtetik gorakoak. Gaia libre da, baina lanek euskarazkoak eta gehienez 6 orrialdekoak izan beharko dute; gainera, parte-hartzaile bakoitzak lan bi aurkeztu ahalko ditu, gehienez. 50-150 euro bitarteko balioa duten txartel-sortak izango dira sariak, udalerriko denda laguntzaileetan erabiltzeko. Bestetik, V. Bertsopaper Lehi-

ketan, adinaren araberako 3 maila daude: 12 urtera artekoak (A), 13-16 urte bitartekoak (B) eta 17 urte baino gehiagokoak (C). Gura beste bertso-sorta aurkeztu daitezke, baina aurkeztuko den

## Erandioztar denei eta Erandioko ikastetxeetako ikasleei zuzenduta daude

«lan» bakoitzak honakoak bete beharko ditu: A taldekoenak, 3 kopia gutxienez, 3 bertso gehienez; B taldekoenak,

4 kopia gutxienez, 8 bertso gehienez; C taldekoenak, 8 kopia gutxienez, 12 bertso gehienez. Bertsoak gai eta neurri librean jarriko dira; oster, ezinbestekoa da doinuaren izena adieraztea. Sariari dagokienez, 100-120 euro bitarteko 3 txartel-sorta izango dira, udalerriko denda laguntzaileetan erabiltzeko.

Lanak e-mailez ala posta arruntez (helbide biak, goiko taulan) bidal daitezke, Euskara Zerbitzuari zuzenduta eta oinarrietan zehazten diren moduei jarraituz: lehiaketa bakoitzari dagokion inprimakia eta eskatzen diren datuak bete osten. ◀

## Uribe Kostako Mihiluze lehiaketaren finala, bihar

**B**arikuan, hilaren 5ean, 18:00etan Sopolako Kurtzio kultur etxean egingo dute Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak eta Topaguneak antolatu duten Mihiluze lehiaketaren finala. Pasa den barikuan Urdulizen egindako sailkapen-galan 28 bikotek parte hartu zuten, ia 60 nerabe uribekostarrek; aretoaren hiru laurdenak bete ziren, 150 ikusle inguru. Joseba Olagaraik aurkeztuko du biharko finala ere, eta horretan lehiatuko diren 4 bikoteak hauek dira: Nora Franco eta Nadia San Andres (Iberre institutua; Sopela), Asier Fernandez eta Gorka Leon (Ander Deuna ikastola; Sopela), Irati Mogrobojo eta Naroa Demigel (Ander



Pasa den barikuko sailkapen-gala. TOPAGUNEA

Deuna), eta Eider Sopolana eta Naroa Castillo (Gorlizko eskola). Lehiaketaren helburu nagusia, nerabe zein helduek ondo pasatzeaz gainera, Uribe Kostako hizkuntza eta kultura ondarea ezagutarazi zein zabaltzea da. ◀

## Barne-barnetik Fest, zapatuan, Txorimalo gaztetxean

**G**etxoko gaztetxean, azken boladan, ekitaldi askorik antolatzen ez badute ere, hilaren 6rako ekimena iragarri dute: Barne-barnetik Fest. Kontzertu bik osatzen dute egitaraua, bertoko talde bi izango dira protagonistak: Smoking Barrels eta 4 Anai talde algortarrak, hain zuzen ere. Zapatu honetako 21:00etan ipini dute hitzordua, Txorimalo gaztetxean; sarrera 3 euroan egongo da. Antolatzaileei dagokienez, Algortako lagun-talde batek hartu du egitekoaren ardura: lantzean behin kontzertuak antolatzea, herriko zein kanpoko taldeei jotzeko aukera eskaintzeko, eta euren musikaz gozatzeko aukera edukitzeko. ◀

## Euskalgintzaren Konpromisoa, eremu sozioekonomikorako

**K**ontseiluak Euskalgintzaren Konpromisoa ekimena abiatu du, arlo sozioekonomikoan eragiteko asmoz. Hala, «Kontseiluko bazkideen komunikazio-hornitzaileei zerbitzua euskaraz eskaini dezaten urratsak ematea» proposatu die, eta horretarako harremanak hasi ditu. Kontseiluko lehendakari Iban Arregik esan duenez, «jakin behar dute Kontseilua osatzen duten erakundeek 1.000.000 eurotik gorako fakturazio-bolumena dutela komunikazio-zerbitzuetan. Argi dago zerbitzuak euskaraz eskaintzea erronka adina aukera dela, bezero berriak aurkitzeko, negozio-aukerak handitzeko...» ◀

**info+:** [kontseilua.eus](http://kontseilua.eus)



# hirukaganda

Uribe Kostako asfekaría

2016ko otsailaren 4tik otsailaren 10era arte



hiruka.eus



URIBE KOSTA

Mozorro-lehiaketak, kalejirak, txokolatada eta ikuskizunak egongo dira, herri guztietan.

## Aratusteakaz gozatzeko hamaika aukera dago

Bariku honetatik aurrera, mozorroz eta kolorez beteko dira Uribe Kostako herrietako kaleak, aratusteak tarteko. Eskola-umeak izango dira goiztiarrenean euren jantziak erakusten; ohien legez, goizean egingo dituzte desfileak. Arrastian, ostera, herri-elkarteek zein udalek antolatutako jarduerak hasiko dira Gorlizen eta Leioan; zapa-tuan, Algortara, Altzagara, Areetara,

Astrabudura, Berangora, Erandiogoi-kora, Izubaltzeta/Romora eta Pinuetara hedatuko dira ospakizunak. Eta domekan, Getxon (Andra Mari) eta Sopelan ospatuko dituzte aratuste-jaiak. Horrenbestez, aste-akabura arte (Algortan, Astrabuduan eta Berangon, asteburu bi) luzatuko dira mozorro-lehiaketak, kalejirak, dantzaldiak, txokolate-janak, ikuskizunak...

Leioan, martitzenean ere izango dira jarduerak. Urduiz dagokionez, hilaren 8an eta 9an egongo dira pailazo-ikuskizuna eta mozorroak egiteko tailerra. Azkenik, Barrikan, Leioako Txorierri auzoan, Lemoizen eta Plentzian, hilaren 13rako ipini dute hitzordua. Metro Bilbaok zerbitzua indartuko du aratuste-garaian. ▶

info+ hiruka.eus/bereziak/aratusteak2016

### SANTA AGEDARI KANTUAN



#### Otsailak 4, eguena

##### Getxo

**18:00-21:00** Gune bitan ibiliko dira kantuan. Talde batzuk Izubaltzeta/Romo eta Areetan, Xake plazatik abiatuta; eta besteak Algorta eta Andra Marin, Telletxe plazan hasita.

**20:00** Areetako Xake eta Algortako Telletxe plazetan batuiko dira, kantaldia batera egiteko.

##### Erandio

**18:00** Altzaga ikastolak eta Kantaguneak egingo dute kantu-jira, Altzagan zehar. Irailaren 23a plazan amaituko dute.

**18:00** Erandioko Musika Eskola, Trabudu Dantzari taldea, Nagusien Elkartea, Iparraize Txistulari Elkartea eta Unamaz Elkartea ibiliko dira Astrabuduan barrena.

**19:30** Mendibaiarte Abesbatza irtingo da kantatzera, Altzagan.

##### Sopela

**12:00/18:00** Goizean, Larrabasterrako Urgixieta plazan, edo arrastian, udalietxeko plazan abestu behariko dute taldeek. Baita ondorengo tabernetan ere: Lailak, La Kala, Urbaso, Setien, Señe eta Irubide.

##### Plentzia

**18:00** Kantaldia egingo dute, Ontziola (Astillero) plazatik abiatuta.

**19:00** Txokolate beroa eta bizkotxoak banatuiko dituzte, Elizako plazan.

#### Otsailak 6, zapatua

##### Barrika

**09:00-15:00** Auzoz auzo eta baserri- baserri ibiliko dira, Aita Gotzon abesbatzak antolatuta. Kantaldiaren ostean, herri-bazkaria (porrusalda, solomoa, postrea eta edaria) egingo dute Batzokian, 15 euroren truke.

##### Urduiz

**08:30** Eortza kaleko 31. zenbakiko egoitzan jarri du hitzordua Txori Alai elkarteak, egun osoz kantu-jiran ibiltzeko.

2016/02/04 - 17:00-19:00

#### Tximino-maskaren tailerra

Kultur etxea | Gorliz

5 eta 12 urte arteko neska-mutilentzat. Doan.

2016/02/04 - 20:00

#### Arana taldearen rock-saioa

Piper's taberna (Algorta) | Getxo

Getxo Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.

2016/02/05 - 18:00

#### Uribe Kostako Mihuluz

lehiaketaren finala

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta. Sarrera, doan.

2016/02/05 - 18:00

2016/02/06 - 18:00

#### Disko-festa eta txokolatada

Ibarreta plaza | Gorliz

Mozorrotuta doazen umeei oparia emango diete. Eurria egitekotan, pilotalekuan izango da.

2016/02/06 - 19:00

#### Ongintzazko enkantea

Getxo kalea, 3 (Astrabudua) | Erandio

Extremadurako Etxeak eta beste hainbat elkarte antolatuta. Garun-paralisis daukaten umeen Caminando con Yeray elkartearen alde.

2016/02/06 - 21:00

#### Barne-barnetik Fest

Txorimalo gaztetxea | Getxo

Smoking Barrels eta 4 Anai musika-talde algortarrek joko dute. Sarrera: 3 euro.



GETXO

## Ipuin-kontaketa ingelesez, Algortan

Kids&Us taldeak *Welcome to the jungle* ipuina eskainiko du zapatuan (hilak 6), 10:30ean eta 11:30ean, kultur etxean. 10 eta 36 hilaibete arteko umeei begirakoa da. Ikusi gura dutenek gonbidapena jaso beharko dute, udal liburutegian. ◀

BERANGO

## Haur-jolasak euskaraz, animatzaile bigaz

Domeka honetan, otsailak 7, magia eta zirku-jolas errazakaz gozatzeko aukera edukiko dute txikiak, Berango Antzokian. Hitzordua 18:00etan ipini dute; sarrera, doan. Umeek animatzaile bi izango dituzte lagun. ◀

GETXO

## Clara Campoamor pelikula ikusgai

Enclave Getxo emakume-elkarteak antolatuta, astelehen honetan, otsailak 8, *Clara Campoamor* filma ikusteko aukera egongo da. Hitzordua 18:30ean jarri dute, Algortako kultur etxean; sarrera, doan. Solasaldia ere egongo da. ◀



Dantzak eta abestiak nabarmentzen dira antzezlanean. © SOPELAKO UDALA

# Glu Glu-ren Txanogorritxo, Sopelan

Charles Perrault-en ipuin klasikoaren moldaketa da antzezlanea; gaur egunera ekarritako testu, forma, irudi eta edukiak dauzka. Azpimarratzekoa da lanak daukan ukitu musikala; dantzek eta abestiek Txanogorritxori lagunduko diote basoko bide ahaztezin, arriskutsu eta dibertigarrian. ◀

**Noiz:** Otsailak 6, zapatua.

**Ordua:** 18:00

**Non:** Kurtzio kultur etxea.

**Sarrera:** 3 euro (umeak) / 5 euro (helduak)  
3 eta 9 urte arteko neska-mutilentzat.

## Erandioko emakumeen aratuste-jaiak

San Agustín plaza, 1-behea | Erandio

Askaria, ogi-tostaden lehiaketa, musika eta dantza egongo dira. Mozorrotuta joateko eskatu dute. Sarrera, doan.

2016/02/05 - 18:30 / 19:30

## Erandioko Musika Eskolako ikasleen entzunaldiak

Astrabuduko kultur etxea | Erandio  
Sarrera, doan.

2016/02/05 - 19:00

## Joaldunen kalejira

Eleiz plaza | Gorliz

Txanoa egin, zintzarriak hartu, eta kalejiran parte hartzea deitu dute. 19:30ean, dantzaldia eta txokolatada egongo dira, Ibarreta plazan.

2016/02/05 - 21:00

## Calvary filma

Areetako musika-eskola | Getxo

Cinema Paradiso zikloaren barruan, 16 urtetik gorakoentzat. Ingelesez, gaztelaniazko apitituluakaz. Sarrera: 2,90 euro.

2016/02/06 - 2016/02/08 - 20:00

## La novia filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa

16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2016/02/06 - 2016/02/07 - 17:30

## Asterix. Jainkoaren egoitza animaziozko filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Denentzat. Euskaraz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/02/06 - 11:30-13:30

## Euskal dantzen ikastaroa

Eskola plaza (Areeta) | Getxo

Lantx eta Zazpi Jauzi erakutsiko ditu Berantzagitaldeak. Parte-hartzea, libre.

2016/02/06 - 13:00

## Kale-animazioa, Les Incognitos taldeagaz

Josu Murueta plaza (Astrabudua) | Erandio

Gauean Alitzagatik ibiliko dira, 22:00etan irailaren 23a plazatik abiatuta.

2016/02/06 - 13:00

## Kale-animazioa, El Puntillo

## Canalla taldeagaz

Irailaren 23a plaza (Altzaga) | Erandio

Gauean Astrabudutik ibiliko dira, 22:00etan Josu Murueta plazatik abiatuta.

2016/02/06 - 22:00

## Gelo Fuentesen bakarrizketak

Ikea Barri plaza | Leioa

Gaztelaniaz. Doan.

2016/02/06 - 00:30

## Xaiborren disko-erromeria

Ikea Barri plaza | Leioa

Karpa egongo da. Sarrera, doan.

2016/02/07 - 12:00

## Ongintzazko herri-lasterketa

Josu Murueta plaza (Astrabudua) | Erandio

Garun-paralisia daukaten umeen Caminando con Yeray elkarrearen alde. Lehendabizi umeak aterako dira, eta handik ordu erdira, helduak. Mozorrotuta ere parte har daiteke.

2016/02/07 - 17:00

## Magiaren etxea filma

Areetako musika-eskola | Getxo

Denentzat. Euskaraz. Sarrera: 2,10 euro.

2016/02/08 - 11:00-13:00

## Aratusteetako ludoteka

Kultur etxea | Gorliz

5 eta 12 urte arteko neska-mutilentzat. Doan.

2016/02/08 - 18:00

## Xalto pailazoa

Kultur etxeko aretoa | Urduliz

Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/02/09 - 18:00

## Izaki mitologikoen mozorroak egiteko tailerra

Kultur etxeko beheko gela | Urduliz

Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/02/09 - 20:00

## Lo que hacemos en las sombras filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Periseo zineforumaren barruan. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/02/10 - 19:00

## Poesia-liburuaren aurkezpena

Algortako kultur etxea | Getxo

*Contra el miedo* aurkeztuko du Pablo Müllerrek (Javier Bermudez). Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/02/11 - 18:00

## Big eyes filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Genero-ikuspegiko zinema. Itzartu emakumeen elkarreak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

Astegunetan  
11:00-13:00  
eta 16:30-20:00

Otsailaren 14ra arte  
Goñi Portalen



argihizkiak.com

# argihizkiak

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO  
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN  
ERAKUSKETA

# Pientzian



# Kultur Leioak familia-antzerkia bultzatzen jarraituko du aurten

**Sendi-antzerkiak harrera ona** izan zuen iaz Leioan: 2.300 ikusle baino gehiago. Hori ikusita, Kultur Leioak segida eman dio mota horretako antzerkia sustatzeari.



*The shoe tree* antzezlana ikusteko aukera egongo da martxoaren 13an. © KULTUR LEIOA

Otsailaren 14an, Malas Compañías zirkutaldea Kultur Leioara ekarriko du *Letter, eskutitz baten bidaia/El viaje de una carta* testu bako antzerki- eta txotxongilo- ikuskizuna. Martxoaren 13an, oster, Pea Green Boat konpainiak *The shoe tree* lana eskainiko du, ingelesez. Leku-kopurua mugatuta da antzerki- eta txotxongilo- ikuskizun horietan; beraz, adi eta arin ibili. Azkenik, apirilaren 16an, Blizard Concept talde frantziarrak *Opera pour seche-cheveux* eskainiko du (EAEn lehenengo aldiz); eta apirilaren 24an, Entremans konpainiak *Xoga*, dantza, musika eta ikus-entzunezko ikuskizuna. Ekitaldi horiek denak Kultur Leioako entzungen izango dira, 18:00etan; sarrera, 5 euroan.

Iaz 2.300 ikusle baino gehiago hurreratu ziren areto leioaztarrean pro-

gramatu ziren 15 ikuskizunetara (dantza, antzerkia, zirkua, multimedia, eta abar); urtebete eta 12 urte bitarteko umeei eta euren familiei zuzendutako ekitaldi horietara. Beraz, urtea ona izan da familientzat; etxeko txikiak protagonista izan dira, eta kalitate handiko askotariko ikuskizunetara gozatu ahal izan dute Kultur Leioan. «Datuek horixe adierazten dute», bertoko arduradunek diotenez: «Ikusleek ikuskizunei egindako balioespena oso positiboa izan da, eta batez besteko nota 8,9 da». Eta gaineratu dute: «Kultur Leioan jarritako konfiantzak eta ikusleek gure ikuskizunei emandako onepen onak familientzako ikuskizunak programatu eta zaintzearen aldeko apustua berrestera eramaten gaitu; horregatik, 2016an emaitza horiek errepikatzea nahiko genuke, eta ahal balitz, are gehiago hobetzea». ◀

## Uribe Kostatik txotx bila doaz sagardotegietara

Egunotan, sagardotegietara joango dira hainbat eta hainbat uribekostar, sasoiko edari fresko, bizi eta garratz arinaren bila. Gutxienez hiru irteera antolatu dituzte txotx preziatua dastatzeko. Goiztiarrenak Egizu! elkarteko berbalagunak izango dira; otsailaren 20an ibiliko dira kupaletan inguruan, Irunen. Aurretik, Albaola itsas kulturaren faktoria bisitatuko dute Pasai San Pedron; bertan San Juan baleontziaren erreplika ikusteko. Helduek 40 eta 43 euro bitartean ordaindu beharko dituzte; eta 20-25 euro, gaztetxoek. Martxoaren

5ean, Itzubaltzeta/Romotik aterako dira; bertako jai-batzordeak eta Txapelak Bat kantutaldea Astigarragarantz ipini dute ipar-orratza. Izena hilaren 12ra arte eman daiteke; txangoa 45 euroan dago. Azkenik, Berangoko Kultur Etxeak ere Astigarragarako irteera egingo du apirilaren 16an, baina inskripziorako epemuga otsailaren 4an amaituko da. Umeek, jubilatuek eta helduek 3, 20 eta 30 euro ordaindu beharko dituzte, hurrenez hurren. ◀

info+: [egizugetxo@gmail.com](mailto:egizugetxo@gmail.com) / 619 935 541  
[erromokojaiabatzordea@hotmail.com](mailto:erromokojaiabatzordea@hotmail.com)  
[berangokultura@berango.org](mailto:berangokultura@berango.org)

## Euskarazko hainbat film egongo dira ikusgai egunotan Uribe Kostako herrietan

Hilaren 6tik 12ra, zinemasale euskaldunek, batez ere gazteenek, hiru filmez gozatu ahal izango dute. Lehenengoa *Asterix, jainkoen egoitza* da. Hiru dimentsioko animazio-filma zapatuan eta domekan emango dute Kultur Leioako entzutegian, 17:30ean; 3,50 euroan. Domekan, *Magiaren Etxea* marrazki bizidunetako film belgikarra proiektatuko dute Areetako Andres Isasi musika-eskolan, 17:00etan (2,10 euro). Azkenik, hilaren 12an, *Loreak* emango dute Urdulizko kultur etxean, 19:00etan, doan, Generoaren Ikuspegiko Zinemaldian. ◀

## Abra Sariaren bertso-afarian izena emateko aukera egongo da astelehenera arte

Bertsolari gazteen Abra Sariaren 15. Bedizioa egingo dute hilaren 12an, barikua, Algortako Azebarri kultur gunean, 20:30ean. Hala, posta elektronikoz zein telefonoz aforian izena emateko azken eguna hilaren 8a, astelehena, izango da; helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte; eta adin txikikoek zein langabetuek, 12 euro. Paule Loizaga sopoloztarra lehiatuko da Azebarrin, Aitor Bizkarra (Abadiño) Sarai Robles (Barañain), Asier Rubio (Luiaondo), Aitor Servier (Azkaine) eta Maialen Akizugaz (Urretxu). ◀

izen-ematea: [albegetxo@gmail.com](mailto:albegetxo@gmail.com) / 605 704 385

## R. ZABALA

Maiatzaren hasiera arte irekita!

- **Bazkariak:** Ostiral, larunbat eta igandetan.
- **Afariak:** Egunero.
- **Enkarguz:** Bakailu Trontzoa Parrilan.

943 69 07 74

[www.rzabala.com](http://www.rzabala.com)  
[info@rzabala.com](mailto:info@rzabala.com)

Garagartza baserria z/g • 20150 Aduna Gipuzkoa









## «Harribitxi bat sortu nahi genuen, gure entzuleen gozamenerako»

**Travellin' Brothers leioaztarrak** sasoian daude, Aitor Cañibano Goikoetxea taldeko gitarra-joleak baieztatu duenez. Orain dela gutxi amaitu dute bi urteko Magnolia Route bira. Bada, barikuan, hilaren 5ean *One day in Norway* disko berria plazaratuko dute, sortu berri duten Magnolia Records zigiluagaz. Egunotan, Polonian daude zuzenekoak eskaintzen...

KEPA UGARTE MARTIARENA



**Zelan laburbilduko zenukete azken urte biotan Amerikako Estatu Batuetan eta European barrena egindako Magnolia Route izeneko bira?**

Ez da erraza. Kar, kar. Magnolia Route diskoa grabatzen amaitu genuenean, bagenekien lan bikaina geneukala esku artean; oso pozik geunden emaitzarekin, eta zalantzarik ez geneukan harrera ona izango zuela publikoaren, kritikaren zein jaialdietako antolatzaileen aldetik. Gauzak horrela, diskoa aurkezten hasi ginen Bilboko Kafe Antzokian, gure herrian... Aldi berean, hainbat eta hainbat tokitatik deitzen hasi ziren, bertara jotzen joateko; bira nahiko handia egiteko aukera ematen zigun horrek.

**Amerikako Estatu Batuetan hasi zenuten bira...**

New Orleans-en eta Mississipi-n hasi ginen kontzertu-bira egiten. Horrez gain, mundu osoko taldeak parte hartzen duten International Blues Challenge 2015 txapelketan parte hartu genuen, Memphis-en; baita finalera heldu ere. Munduko zortzi taldek baino ez daukate sariketa horretako finalera heltzeko aukera! Ikaragarria izan zen! Komunikabideetan oihartzun sano handia izan zuen horrek; guretzat bultzada handia izan zen.

**Horren ostean, Europara jo zenuten.**

Bestelako herrialdeetatik jotzeko eskaintzak heltzen hasi zitzaizkigun: iazko martxoan, Europa mailako

txapelketan parte hartu genuen Bruselan, baita irabazi ere! Abendura arte, erabat topera geneukan kontzertuen egitaraua, baina sariketa hori irabazi ostean, zoramena izan zen! Askoz emanaldi gehiago egiteko deitu ziguten. Moldatu ginen ahal izan genuen bezala; ahalik eta hoberen egiten ahalegindu ginen. Magnolia Route biraren barruan, bi urtean, 120 kontzertu

**“ Sano ipurdantzariak gara. Ez dugu eserita bost minutu ere irauten. Disko berri bat grabatzeko gogoak genituen ”**

eman ditugu 11 herrialdetan. Oso esperientzia polita izan da; leku oso ezberdinetan egon gara, bluesaren eta jazzaren kulturaren oso jantziak dauden herrietan, besteak beste. Oso aberasgarria izan da; musika-arloan gehiago ikasteko eta gauzak hobeto egiteko balio izan digu esperientzia horrek. Gainera, harrera oso ona izan da joandako leku guztietan; adibide bat aipatzearren: iazko kontzertuetatik, jotzeko data gehiago atera zaizkigu aurtengo birarako.

**Esaten dute inor ez dela profeta bere herrian. Horrela sentitu zarete inoiz?**

Ehuneko ehunean ez da horrela izan. Guk badakigu egiten dugun musika-mota gutxiengo baterako dela; ez da ezustekoa izaten komunikabideetan ez agertzea. Oinak lurrean dauzkagu; badakigu zertan gabiltzan. Beste estilo bateko talde batek guk lortu dugun beste lortu izango balu, agian, hedabide guztietan egongo litzateke. Guk blues, jazz eta swing musika-estiloak jorratzen ditugu, eta gure zabalkundea horren araberakoa da. Hala ere, esan beharra dago 12 urte direla kontzertuak ematen gabiltzanetik: 820 emanaldi baino gehiago egin ditugu, Espainia mailako txapelketa ia guztietan jo dugu, eta zazpi disko atera ditugu. Pozik gaude gure ibilbidearekin!

**Esan daiteke Travellin' Brothers dela, azken urteotan, blues munduan, ikusmin handiena sortu duen taldeetako bat?**

Bai. Horrela da.

**Horrek eroan zaituzte otsailaren 5ean plazaratuko duzuen diskoa sortzera?**

Sano ipurdantzariak gara: ez dugu eserita bost minutu ere irauten. Disko berri bat grabatzeko gogoak geneukan; bi urtean behin plazaratu ohi dugu lan berri bat, bai gure abesti berriak jendeari ezagutzera emateko, bai gure zuzeneko espektakulua berritzeke. Gauza berri bat eman nahi izaten diegu beti jendeari eta jaialdien antolatzaileei. Izan ere, zirkuitu berberari bueltaka ibiltzen gara beti; gauza berriak proposatu egin behar dira.





Duela bost urte hasi ginen Suitzan, Frantzian eta Portugalen kontzertuak eskaintzen; baina azken bi urteko birek izan dute benetako garrantzia. Momentu goxo hori aprobetxatu nahi genuen zuzeneko grabaketa bat egiteko; harribitxi bat sortu nahi genuen, gure entzuleen gozamenerako. Gu oso pozik gaude egindako lanarekin.

**Diskoaren izenburuak argi adierazten du zein den lan berriaren muina, ezta?**

Bai. *One day in Norway* izenburuak ez du zalantzarako izpi handirik uzten.

**Disko berezia da. Zelakoa izan zen lan hori grabatzeko prozesua?**

Grabatzeko prozesua oso berezia izan zen; estres handiarekin bizi izan genuen, baina oso motibagarria izan zen, aldi berean. Guztira, 24 ordu izan ziren, etxetik atera eta bueltatu ginen arte. Bitartean, hegazkinez zein furgonetan egindako bidaiak, zortzi orduko grabazio-saioa, eta Notodden-eko (Norvegia) festibalean eman genuen kontzertua. Aurrekontu aldetik, European dagoen blues txapelketarik handiena da hori. Oso azkarra izan zen dena, baina poz-pozik gaude emaitzarekin.

**Juke Joint Studio-a ez da ohikoa.**

Diskoa Notoddeneko Juke Joint estudioan egin genuen; atmosfera berezi bat dago bertan. Tresna guztiak analogikoak dira; Memphiseko Stax estudiotik

eraman zituzten nahasketa-mahaia, mikrofonoak, hainbat teklatu, amplifikadoreak... Grabazioa oso berezia izan zen: zuzenean egin genuen, denok batera, duela urte asko diskoak grabatzen ziren moduan.

**Zaila izan zen?**

Erronka hori hartu nahi genuen, eta uste dugu ondo

**“Betidanik seikotea izan gara. Nahiz eta *big band* batekin jo, seiok bakarrik osatzen dugu Travellin' Brothers taldea”**

baino hobeto gainditu dugula. Kontuak hala, diskoaren izenburuak grabaketa-prozesua zelakoa izan zen islatzea nahi genuen. *One day in Norway* aukuratu genuen ondo baino hobeto laburbiltzen duela zelakoa izan zen prozesua; egun bakarrean egin genuen guztia. Bestalde, Norvegiari omenaldi txiki bat egin nahi genion, izenburuan aipatuz; bluesa eta musika beltza ondo zaintzen badakitelako.

**Zergatik erabaki zenuten azken lan hori seikote moduan grabatzea?**

Argi eta garbi, Travellin' Brothers seikotea delako.

Azken urteetan gauza asko egin dugu *big band* moduan, gonbidatuekin, abesbatzekin... Lehen aipatu dudan bezala, oso ipurdantzariak gara, eta beti gauza berriak egin nahian gabilta. Baina betidanik seikotea izan gara; nahiz eta *big band* batekin jo, seiok bakarrik osatzen dugu taldea.

**Bestalde, zigilu propioa sortu duzue 12 urtean ataratako 7. disko honetarako. Zigilua aurkezteko erabiliko duzue disko berria?**

Magnolia Records izeneko zigilu berria eratu dugu kontu guztiak gure eskuetan egon daitezen; hau da, gauzak nahi dugunean egiteko. Horrek ez du esan nahi Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin harreman txarra izan dugunik; inondik inora ere ez! Oso pozik egon gara beti eurekin; harremana oso ona izan da. Baina, azkenean, guretzat errazagoa zen zigilu berria sortzea. Gainera, orain, nazioarte-mailan izena badaukagunez, uste dugu gure zigilu propioa edukitzea hobea dela eguneroko funtzionamendurako.

Diskoari dagokionez, DVDa egin dugu Magnolia Route biraren irudiekin; urte bi iraun duen bidai luze horren laburpen bat da. Kontzertu guztietan izan dugu alboan bideo-kamera; irudi horiekin guztiakin 30 minutuko dokumentala sortu dugu. Diskoarekin batera salduko dugu DVDa.

Binilo-formatuan ere, edizio berezi bat egingo dugu; bertan sartuko ditugu CDa eta DVDa, opari. Egin diguten diseinu-lanarekin oso polita geratu da.

**Errepertorio ezberdinak ere prestatu dituzue musikari ezberdinekin batera jotzeko.**

Betidanik gonbidatu izan ditugu hainbat eta hainbat artista, gurekin jotzeko eta gure entzuleek musikari horiek ezagut ditzaten; horietako baten errepertorioa lantzen dugu, eta gurekin jotzera gonbidatzen dugu. Pasa diren urteetan, J.T. Lauritsen, Andy J. Forrest, Nico Wayne Toussant, Sugaray Rayfords eta beste hainbat izan ditugu gurekin.

**Diozue, 2015. urtea «txiki» utzi gura duzue.**

Kar, kar. Iaz izandako arrakasta hobetzeak zaila ematen badu ere, beti gertatu izan zaigu gauza bera: urte bat bukatzen dugunean, gure artean horren balantzea egin ohi dugu, eta beti pentsatzen dugu hobetzea oso zaila izango dela. Baina, azkenean, urtean-urtean hobetzen ditugu aurreko urteko markak; orain ere gauza bera gertatuko zaigula uste dugu. Otsailaren 5ean plazaratuko dugu *One day in Norway* diskoa, eta agenda ia-ia beteta daukagu jada. Momentuz, 14 edo 15 herrialde desberdinetan baieztatuta dauzkagu kontzertuak; otsailaren 4an Polonian egon behar dugu, Gdynia hirian jotzeko.

**Urte osorako lana baduzue, orduan?**

Abendura arte ia beteta daukagu kontzertuen zerrenda; hurrengo urterako ere gauza asko dauzkagu itxita. Beraz, antza, 2016a aurreko urtea baino hobea izango da. Hala ere, momentuz, kontzertuz kontzertu joan behar dugu; gozatzea da kontua.

**Beraz, luzerako daukagu Travellin' Brothers. Sasoi betean zaudete!**

Hala espero dut! Momenturik onenean gaude, baina tentuz ibiltzea komeni da; ez dakigu noiz arte iraungo duen momentu goxoak. Batek daki. Agian, bi urte barru telefonoa noiz jotzeko zain egongo gara... Gozatzea eta disfrutatzea da orain dagokiguna. Gero, gerokoak. ◀



## Uribe Kostako eskubaloia, txapeliduna!

**Urdulizko eta Berangoko** eskubaloi-taldeak zorioneko daude. Urdulizko mutil kadeteek Bizkaiko txapelketa irabazi dute, eta beste hirurek, podiuma.

**P**asa den urtarrilaren 23an eta 24an jokatu zen mutil kadeteen Bizkaiko Txapelketako lauko finala, Bermeon. Urdulizko Eskubaloia elkarteko mutil kadeteek Bizkaiko titulua lortu, eta aurretik ligan eskuratutakoagaz batu zuten. Bermeoko lehenengo partidand, finalurrekoetan, 33-18 nagusitu zitzaizkien Escolapioseko jokalariei. Finalean, Gasteizko Corazonistas erabat menpe hartu, eta garbi-garbi gaintitu zituzten, 42-16. Kontuak hala, kadeteak Euskal Ligara igotzeko promozioan sartu ziren, eta pasa den aste-akabuan etxean berretsi zuten aurtengoa erakutsitako sasoi ona. Urdulizko Iparralde kiroldegian jokaturako hiru partidetan hartu zituzten mendean Basauri, Donostia eta Gasteizko taldeak, Euskadiko Txapelketarako lekua eginez. Titulu hori zailagoa izango da, aurrean Euskal Ligako talde histo-

rikoak izango baitituzte, Bidasoa eta Errenteriako Ereintza esaterako.

Neska gazteen Bizkaiko txapelketan, berriz, Berangokoak izan ziren basauriarren lehenengo biktima, Basaurin bertan. Hegouribetarrek Uribe Kostako derbia zapuztu zuten txapelidun bihurtzeko bidean, baina eskualdekoek podiumeko beste leku biak hartu zituzten. Urdulizko neska gazteen taldea txapelidunorde geratu zen: Muskiz gaintitu arren, ezin izan zioten eutsi Indupime Basauriren erasoari. Berangoztarrek Meatzaldeari irabazi zioten kontsolamendu finalean. Promoziorako lekua lortuta, Urdulizko emakumeek ez zuten gauzatu Oñatiko Aloñamendiren aurka izan zuten aukera, eta Bizkaiko Kopa izango dute hurrengo helburua.

Azkenik, Urdulizko mutil gazteak Bizkaiko hirugarrenak izan ziren, etxean jokatu zuten txapelketan. ◀



Goitik behera, Berango eta Urdulizko emakume gazteak, Urdulizko mutil kadeteak eta Urdulizko mutil gazteak. © BERANGO ESKUBALOIA ETA URDULIZ ESKUBALOIA

## Berangotik kanpo kirola egiteko laguntzak abian

**B**erangoko Udalak martxan ipini du kirola sustatzeko laguntzen deialdia. Hala, Fadura edo Sopelako kiroldegiak erabiltzeko laguntza-eskaera egiteko epea martxoaren 31ra arte izango dute berangoztarrek. Diru-laguntza jaso ahal izateko, eskatzaileek hainbat baldintza bete behar dute. Berangon erroldatuta egon behar dute, eta kiroldegirako norbaiten edo familiarentzako abonarekin titularrak izan. Fadurako erabiltzaileak laguntzetatik kanpo geratuko dira, urtebetetik beherako iraupena badu euren abonuek; aurtengoak, aldiz, onartuko dituzte. Sopelan, oster, kanpoan



lotuko dira, urtebete baino gutxiago badu abonamenduak; iazkoak, ordea, onartuko dituzte. Eskerakaz batera, beharrezkoa da honako agiriak aurkeztea: abonamenduaren ordainagiri edo fakturaren kopia, familia-liburua (behar bada), eta errolda-agiria. ◀

## Itxas-Argia mendi-taldearen txangoak prest

**G**etxoko Itxas-Argia mendi-taldeak zabaldu ditu 2016. urterako antolatutuen mendi-irteerak. Otsailaren 21ean, Kantabriako Astranatik Riba de Ruesgara joango dira, Hoyo Masayo igaroz. Martxoaren 20an, sagardotegira joango dira, Erlora. Apirilaren 16 eta 17ko aste-akabuan, ordea, Kantabriako Europako mendietatik ibiliko dira, Torre Blancan eta Tresvison. Maiatzaren 22an, beste txango bat egingo dute Burgosko Peña Corvillara. Lehenengo sei hilabetekoa ixteko, ekainaren 17tik 19ra asteburu-pasa egingo dute Huescan, Acher gazteluaren inguruan. ◀

info+: itxasargiamenditaldea@gmail.com

## Betiko Neskak-en jokalaririk ohi bi, Espainiagaz

**O**ihane Hernandez Zurbano eta Damaris Egurrola Wienke Athletic Bko jokalariek parte hartu dute Espainiako 17. urteko selekzioaren aurtengo lehenengo kontzentrazioan. Egonaldia urtarrilaren 25etik 27ra izan zen, Madrilgo Las Rozas herriko futbol-hirian. Hernandez aurrelaria eta Egurrola erdilaria Erandioko Betiko Neskak taldearen jokalaririk ohiak dira. Hernandezek pasa den irailean aldatu zituen San Lorentzoko instalazioak Lezamakoengatik. Egurrolak, berriz, 2014-2015 denboraldian eman zuen jauzia, eta aurtengo partida bi jokatu ditu lehenengo taldeagaz. ◀



# Euskal waterpolo leioaztarra da



Euskadiko Selekzioak deitutako Leioa Waterpoloren sei jokalaria, Irati Araujo ordezkogaz. © L. W.

**D**atorren martxoaren 17tik 20ra jokatu da Valladoliden Estatu espainiarreko erkidego autonomikoen arteko hurren waterpolo-txapelketa. Proba hori buruan, hilabeteak daroztate lanean Euskadiko Waterpolo Selekzioaren prestatzaileek: Aitziber Ortega (Leioa Waterpolo), Joan Albella (Askartza) eta Mikel Ogara (Portugaletako Nautika). Pasa den azaroaren 15ean, Sako-netan umeentzako teknifikazio-saio bat egin ondoren, nesken eta mutilen taldeak fintzen ibili dira. Urtarrilaren amaieran, berriz, ezustekorik ezean, behin betikoak izan daitezkeen ize-nak zabaldu zituzten. Nesken taldean 13 jokalaritik seik Leioa Waterpolon

jokatzen dute: Naroa Etxaniz, Maider Sobera atezaina, Nora Toledo, Erika Lopez Pastor, eta Espainiako txapelketan errepikatuko duten Ane Salazar eta Ane Arana. Seikote horretaz gain, Valladolidera bidaiatzeko aukera ere izan dezake Irati Araujo ordezkote atezain leioaztarrek, Sobera edo Bidasoako Nerea Mitxelena lesionatuko balitz.

Bestalde, gizonezkoei dagokienez, lau dira Euskadiko selekzioagaz jardungo duten Askartzako jokalaria: Alejandro Camara atezaina, Joseba Uriarte, Nicolas Gorbeña eta Iker Argote. Euskadiko Selekzioaren hurrengo entrenamendua otsailaren 28an izango dute, Gasteizko Mendizorrotzako kiroldegian. ◀

## Abrako Gizarte Saria aurrera, haize barik

**P**asa den aste-akabuan Abrako Gizarte Sariaren bigarren estropada egin zen itsasadarrean. Abrako Errege Itsas Klubak J-8oko proba baino ez zuen aurrera eroan, haize-faltak eragotzi baitzituen gurutzaontzi deritzen belaontzien estropadak. Hala, Jose Azquetaren *Biobizz* ontzia J-8oko liderra da, berriro ere nagusitu ostean. A-B eta C kategorietan, berriz, sailkapenak berdin geratu dira, eta Paddy Aldecoaren *Uso Zuria* eta Javier Peñaren *As de Guia VII* dira sailkapeneko buruak, hurrenez hurren. Jokatu zen proba bakarrean, *Biobizz*-ek Abrako seigarren garaipena

batu zuen segidan, ur horietan jokatu dituen estropada denak, alegia. Erabateko nagusitasuna erakutsi du Azquetak Bizkaiko uretara bueltatzen, pasa den denboraldia Santanderren eman ondoren. Liderrak bost puntu eta bazterkin bat dauzka. Sailkapeneko bigarrena Ramon Zubiagaren *Mandovi* da, 12 puntugaz. Behin-behineko podiumean dago Gonzalo Chavarriren *Fin Gol Fin*, 16 puntu batuta, Ibon Basañen *Jet Set* baino hiru gutxiago. Atzean dira Alfonso Churrucaren *Alpega* (20), Jose Luis Ribed-en *Pilgrim* (25) eta Pablo Gomezaren *Obelix* (38). Azken proba otsailaren 13an izango da. ◀



*Biobizz*-en nagusitasuna nabaria izan zen, baita bigarren estropadan ere. © A.E.I.K.



**Kepa Aceroren azkena** kontatu berri digute Kimball Taylor idazleak, Grant Ellis editoreak eta Alex Laurel kamerariak. Hiruren artean, *Gabon, journey to the center* dokumentala sortu dute, Acerok Gabonen izandako esperientziak eta hartutako olatuak partekatze. © KEPA ACERO

## Duatloi eta triatloi galak saria ekarri dio Getxori

**E**uskal Herriko duatloi- eta triatloi-gala ospatu zuten pasa den aste-akabuan Irunen. Euskadiko Triatloi Federazioak antolatuta eta Nafarroako federazioaren laguntzaz, Hego Euskal Herriko zirkuituko seigarren edizioaren sariak, 2015ekoak, banatu zituzten, jai-giroan. Uribe Kostako kirolariei 3 sari egokitu zitzaizkien. Duatloi zirkuituan, Xabier Urrechua Arrizabalaga Getxo Triatloi Taldeko kidea izan zen 2015eko hirugarren gizonezko kadeterik onena. Triatloian, elkarte bereko Raul Olano Barturen izan zen gizonezko beteranoen 1. kategoriaren buru, eta Nicolas Bontigui



Corral Trirunners Getxo taldekoa izendatu zuten mutil kadeterik onena. Sari nagusi gehienak, ordea, Gipuzkoa eta Arabaren artean geratu ziren, herrialde bakoitzak hiru lortu zituen-eta. Nafarroak bakarra izan zuen, eta Bizkaiak, bat ere ez. ◀



# Eskualdeko hockeya, Riora



Abuztuan, Jokoetarako sasoiari izatea espero dute Ybarratarrek. © MATIAS L. SARTORI - E. H. F.

**R**io de Janeiroko Olinpiar jokoetarako prestatzen jo eta ke dabilta Uribe Kostako belar-hockeyko hiru jokalaria, Espainiako Selekzioagaz. Astelehenera arte, Valentzian kontzentratu dira astebete, Rozio eta Lucia Ybarra ahizpak eta Maria Lopez de Eguilaz atezaina, beste 21 jokalarigaz.

Adrian Lock entrenatzailearen agindupean, RedSticks-ek hiru lagunarteko partida jokatu ditu Belgikako selekzioaren aurka. Lehenengo partidari, 2-2 berdindu zuten talde europar biek; bigarrenen, ordea, penintsularrak nagusitu ziren erabateko 5-0 emaitzagaz. Azken partidari, jokia berretsi zuten, eta 4-1 ipini, markagai-

luan. Lucia Ybarrak joko ona erakutsi zuen, nahiz eta Estatuko selekzioak aurretik, urtarrilean, egin zituen presaketetara deituta ez egon. Irlandaren aurkako lau partida galdu zituzten orduan. Valentzian, ordea, tanto bi sartu zizkien belgikarrei: bana, lehenengo eta hirugarren partidetan.

Rocio Ybarrak, berriz, gol bat sartu zuen, azken deman. Luciak Real Sociedad taldean jokatzen du, Maria Lopez de Eguilazek legez. Rocio, ordea, Herbehereetako ligari dabil, Orange Zwart taldeagaz. Datorren zapatuan, otsailak 6, jokalaria Valentziara bueltatuko dira, hirugarren txandarako; hileren 12ra arte kontzentratuko dira bertan. ◀

## Virginia Diazek lortu du Espainiako txapelketa

**V**irginia Diaz Rivas Raspas Arraun elkartearen arraunlaria da Espainiako txapelketa absolutua iraupen-estropadako skiff modalitatean. Klubentzako Espainiako VI. Iraupen Txapelketa Sevillako Guadalquivir ibaian egin zen domekan, urtarrilak 31, kadete, gazte eta absolutuen kategorietan, skiff (1x) eta lemazain gabeko biko (2-) ontzien modalitateetan, Espainiako Arraunketa Federakundeak antolatuta. Elkartearrekarak 17 arraunlari, neska eta mutil, eroan zituen Sevillara.

Virginia Diazek 25.30,30 denboran egin zituen distantzia luzeko estropa-

dako 6.000 metroak, eta garaipena lortu zuen. Atzean geratu ziren Nuria Dominguez Robaleira arraun-elkartekoa, 25 bat segundora, eta Rocio Lao Sevillako itsas-elkartekoa, 26.47,67 kronoagaz. Denera, txapelketan 343 kirolarik parte hartu zuten, 281 ontzitan, aipatutako modalitateetan.

Diazek egindako estropada handia eta lortutako balentria biribiltzeko, aurreko egunean txapelketaorde izan zen Espainiako XV. Arraun-ergometroko Txapelketan, Sevillako Tomares herrian. 2.000 metroko proban, gainera, Virginiak bere marka onena ondutu zuen, kronoa 6:59an lotuta. ◀



Domekako txapelketa eta podiumeko kirolariak. © RASPAS



**Aizea Vilanova Ruiz** Erandioko Atletismo Eskolako kimuak hirugarren postua lortu zuen Donostiako Nazioarteko Krosean, domekan. Era berean, hirugarren geratu zen eskola bereko lau kadeteen taldea: Ekaitz Ruiz, Eneko Quintero, Daniel Linares eta Beñat Gonzalez. © DNK

## Basakicken boxeolariak Bizkaiko tituluaren bila

**Z**apatu honetan, otsailak 6, Bizkaiko Olinpiar Boxeoko Txapelketa abiatuko da, 18:00etan, Sestaoko Benedicta kiroldegian, finalaren zortzirenakaz. Bizkaiko Boxeo Federazioak izena emateko prozesua irekita dauka (aldizkari hau inprentara zihoanean behintzat). Halere, Urdulizko Basakick klubak jakinarazi du bertoko lau kirolari igoko direla ezker aldeko ringera: Youssef Hamyd, 60 kilo azpiko kategorian; Jorge Marti eta Diego Valtierra, 64 azpikoan; eta David Larrinaga, 90 azpikoan. Lau boxeolariak ez dute jantziko Basakicken arroparik, Urkabe Euskadi talde be-

riarena baino. Izan ere, Urdulizkoek konbinatu hori sortu dute MT Boxing elkarte sekaotarragaz batera. Hala, lehenengo hitzordua egun honetan izango da, Bilbon, Bizkaiko Kirol Federakundearen Elkartearen egoitzan. Bertan, boxeoborroaldien zozketa publikoa egingo dute. Txapelketa zapatuetan egingo dute, leku eta ordu berean; finala, hileren 27an.

Zapatu honetan, berriz, Youssef Hamyd Basakickeko kirolariak saio bikoitza egingo du, Laukizko Kick Light eta Light Contact Sarian ere jardungo baitu. Beragaz batera, Basakickeko beste 12 lagunek parte hartuko dute. ◀



## Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!  
publi@hiruka.eus · 94 491 13 37

5€



**AIALA PLENTZIA**  
Familiaren partez

Gure etxeko printzesak hiru urte betetzen ditu gaur. Zorionak, AIALA! Peio, amatu eta aitaxuren partez. Egun zoragarria pasa, txikitxu!



**UXUE BERANGO**  
25metroren partez

Zorionak, uxufaaa! Gure txiletarra 30. urtemugara heldu zaigu, inoiz baino guapago, gainera! Musu bat, eta bi, eta hiru!



**GAIZKO ALGORTA**  
Aure kuadrillaren partez

Zorionak, Gaizko! Gero eta guapago zaude, elegante, eder... inbidiak jota gaude! Esaiguzu zein den zure sekretua eta goazen *katxarro* bat hartzera!



**MARTA GORLIZ**  
Maite zaitugunen partez

Zorionak, Marta!! Musu pilo bat jaso maite zaitugunen partez, eta hala! eraman gaitzazu zer edo zer hartzera ezta? Guapaaaaa!



## Horoskopoa



**Ura**  
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Hamaika buruhauste eta egundoko ahaleginak egin ondoren, behingoz amaitu da urtarrileko aldatsa. Zorionak!



**Adarra**  
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Aspaldiko zauri horietan hazka egiten zabilta, atsedean hartu barik. Hobe zenuke horrela jokatzeari uztea.



**Hostoa**  
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Kalean behin eta berriro ahal dela entzun arren, ezin denean ezin da. Halere, zure in darra bide berriak zabaltzeko erabil dezakezu.



**Garia**  
(Ekainak 19-Uztailak 18)

«Ez» hitzaren esanahia azaldu dizute inoiz? Eta? Ez zenuen ondo ulertu? Orduan, zergatik jarraitzen duzu denari baietz esaten?



**Iratzea**  
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Lantzean behin, kanturako ahots lirainak topatzen dituzte auzokideen artean. Lasai egon, ez da zure kasua izango. Gura baduzu, ahalegin du pianoagaz.



**Hazia**  
(Urriak 17-Azaroak 15)

Osasun-arazo arin eta ez kezkarriak izango dituzu laster, txerrikeria gehiegi jateari uzten ez badiotzu behintzat.



**Negua**  
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Zertan zabilta denbora osoan «goazen, goazen» esaka? Lasai ibili! Hemendik At taldearen garaiak aspaldi pasatu ziren-eta!



**Otsoa**  
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Burugogorkeria apur bat izatea berez ez da bekatu, baina zure kasuan, ez da gogor izatea, blindatuta egotea baino!



**Aitzurra**  
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Urak dakarrena urak daroa... baina ez dakigu alkoholen kasuan ere kontu bera gertatzen den. Hobe probarik ez egitea.



**Eguzkia**  
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zutaz aparte, munduan bada bestelako pertsona multzo ikaragarria: milaka milioi. Ohartu zara noiz-bait horretaz?



**Lastoa**  
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Azken boladan ez bero eta ez hotz, epel zabilta denagaz. Ez larritu, garai hobeak une batetik bestera helduko dira.



**Meta**  
(Irailak 17-Urriak 16)

Sekulako garaia biziko duzu. Gura duzun dena eskura dezakezu, batere ahalegin barik. Balia egizu aukera orain!

## Soluzioa



## Zazpi ezberdintasunak





# Mozorroen

## Mundakako aratusteak: Atorren zuria eta Lamien beltza

**I**gande inauterian, herriko gizon eta mutil gazteak, «atorrak» izenekoak, kalez kale ibiltzen dira musika jotzen, zuriz jantzita. Musika bandako zuzendariak, berriz, frak beltza eta kolore bereko kapela izaten ditu. Portuan, propio konposatutako abesti bat kantatzen dute, aurreko urteetako kantuekin batera.

Mundakako aratusteetan, aspaldiko karatula berezia ikus dezakegu: «marroa» edota «atorra» deiturikoa. Antzina, herriko gizonezkoek euren itxura ezkutatzeko zapi bat aurpegian, eta bi gona janzten zituzten: bata ohi bezala, eta bestea burutik sartuta, atorra baten moduan; horregatik izenarena, eta mozorroturik ematen zuten egun osoa ka-

leetan, etxeko andreei eta gaztetxoei zirriak egiten. Noiz edo noiz, balkoitik etxean sartu, eta tostadak ere lapurtzen zituzten. Auzokideak nortzuk ziren ez jakiteko, aurpegiko zapia elkarri aldatzen zioten.

Kondairak dioenez, Anton Errekak egin zuen ospetsu Mundakako aratusteen orduko jantzia. Behin, etxera mozkortuta heldu, eta konturatu bari emaztearen gona ipinita kalera irten zen erratzaren zigoretik libratzeko. Auzotarrek ikustean, pentsatu zuten kondearen jenialtasuna zela, eta ospatzea erabaki zuten.

Gaur egun, lehengo ohitura horietatik *estudiantinarena* bakarrik dago bizirik. Bertako protagonistak, atorrak, taldean aritzen dira aratustetako kantak abesten. Abesti hauen ohitura oso zaharra da. Urtero kanta bat asmatzen dute, eta musika, eta letra. Normalean musika kalejirakoak dira, baina bestelako erritmoak ere jotzen dituzte: habanerak, saltsa... Abestien letrek berezitasunak dituzte: askotan, herrian gertatutako zer edo zer aipatzen dute, eta zentzurik gabeko hitzak tartekatzen dituzte:

«Bexigu latako egunak  
Lan arren baziran  
Baina oraingo  
Preziyuagaz  
Nork dakotzu dirua  
Txitxarroagaz konpromo  
Egon bear zara  
Bestela gure diruak  
Al karajora doaz»

Aspaldiko kontuak ez badira ere, Mundakako aratusteetan *Lamia* deituriko pertsonaiak ere hartzen du parte. Mundaka inguruan bizi izaten ziren sorginak imitatu nahian, bertako emakumeek soineko beltzez apainduta, eta aurpegia zuriz margotuta, kalera irten, eta dantzatzen dute.

\*Aratuste hitzaren esanahi etimologikoa hauxe da:  
**Haragi + huts + te (denbora).**

HITZA.EUS  
MUNDAKAKO  
ATORRAK

## Rio de Janeiro, mokorren mugimendua eta gehiago

**G**ero eta gutxiago falta dute mundu osotik etorritakoek lehenengo danbor hotsak entzuteko, munduko jairik entzutetsuari ekiteko.

Desfilerik garrantzitsuenak eta ikusgarrienak sanbodromoan egiten dituzte. Bertako harmailetan 30.000 mila lagun egoten dira eta sanba eskola bakoitzak ordu bete eta hogeitun minutu izaten ditu jendea txunditzeko, liluratzeko. Desfileak nahikoa kao-



© GRILLO PORTENO



# dantza eta antzerki sasoia

Testuak: JUAN LUIS MUGERTZA UNANUE

**Mundutarrok batzen gaituen** ospakizuna; bakoitzak bere ohiturei eta arrazoiei jarraituz... Gurean, inauteri, *ihauteri*, aratuste\*... hitzak erabili ohi ditugu; kanpoan, *entroidoak*, *carnival*, 狂欢节... Izen asko baina helburu bakarra neguaren bukaera aldera jendeak mozorroturik ospatzen dituen jaietan: ondo pasatzea.

tikoak izaten dira, eta zoroaldia lortzea dute helburu. Esatariek sanba eskola, sekzioak eta kolore tematikoak aurkezten dituzte. Gero, «puxador» izenekoaren ahots bakartiak ekiten dio sanbari eta milaka ahots eta ehunka danbor harrabotsek lagunduta, desfilearen erritmoari eusten diote. Horren ostean, talderik garrantzitsuenak, karrozarik dotoreenak, ume taldeak, danborrak eta «baianas» izeneko emakumeak, beraien jantzi tradizional harroak apainduta, musika jotzen eta dantzatzen hasten dira.

Emakumeekin batera «mestresalak» (dantza irakaslea) eta «porta-bandeira» (banderaduna) ere dantza eta biraka aritzen dira.

Taldeak desfilea egin, eta ordu pasa ostean, epaileen tribunaren aurretik igarotzen dira, martxek lehia itxura hartzen dute eta. Epaimahaikoek eskola onenari saria ematen diote.

Horretarako kontuan hartzen dituzte perkusioa, abestia, dantza, koreografia, mozorroak, argumentua, karrozak eta dekorazioa. Irabazitako taldeak, bai Rio de Janeiron, baita Brasil osoan ere, harrotasuna eta ospea izango ditu.

## Lazako Entroidoak: Peliqueiroak

**T**eoría asko dago bertako protagonista nagusien inguruan. Batzuek XVI. mendean kokatzen dituzte *peliqueiro*-ak. Orduko kondeek jendea beldurtzeko eta zorrak kitatzeko erabiltzen omen zituzten. Beste batzuen ustez, ehizan erabiltzeko, eta otsoak uxatzeko pertsonaiak ziren. Edozein iritzi delarik ere, Lazako inauteriak Galiziako (Ourense) ospetsuenetakoak dira.

### Inurrien inauteriak

Dagoeneko, joan den urtetik armairu barruan gordetako jantziak txukun, eta garbi egongo dira Laza inguruetako herrixketatik (Matama, Trez, Morena...) etorritakoak janzteko. Festen hasiera, Garizuma aurreko ostiral gauean, «fachos» izenekoek hasiera ematen badiote ere, igande goizean, meza ostean, *peliqueiroak*, protagonistarik inportanteenak, festen jabeak izango dira, eta euren nagusitasuna erakusteko herriko kaleetatik zehar korrika arituko dira, etengabe; baina ez edonola, ez edonora. Isipubana izango dute eskuetan, eta bat baino gehiago astinduko dute, baldin eta gaizki portatzen badira, edo traba egite badute. Halarik ere, jendeak *peliqueiroa* iraintzea izango du, baina hori bai, ezin zaie ukitu, ezta janzkera zikindu ere. Aurpegiko maskarak, buru gaineko aluminiozko mitrak, gerri bueltako sei joaldunek, jaka eta praka zuriak, gorbata gorriak... osatzen dute 3000 euro inguru balio duen janzkera, eta 15-20 kilo bitarteko pisua hartzen du. Animaliez margotutako egurrezko maskara egiteko urkia edota sahatsa erabiltzen dute.

Egunik garrantzitsuena astelehena izango da. Egun horretan, *Entroido* edota *Dia da Borralleira*

ospatuko dute, eta goizean hasita, *Farrapada* (lokatzetan bustitako zapi borroka) eta *Xitanada* (asto gainean bikoteka egindako prozesioa) egingo dituzte. Gero, bazkaldutakoan, «A baixada da Morena» izeneko kalejirari ekingo diote. Morena pertsonaia manta batez gorputza estalita, eta behi buruaz mozorrotuta arituko da, eta bere zeregina emakumezkoak zirikatzea, eta gona altxatzea izango da taldekideekin batera Praza da Picota-ra joan bitartean. Enparantzan batutakoei inurriak eta irina botako dizkiete.

Jaien bukaera, asteartean izango da, herriko plazan; bertan agiri bat irakurri, eta urte osoko balantzea egingo dute. ◀




## Inauterien historia

Europako inauterien jatorria Erdi Aroko udaberrian ospatutako ikuskizun paganoetan kokatu behar da. Erreformak eta Kontrarreformak ezarritako debekuak kontinente zaharrean bukaera ekarri arren, portugaldarren kolonian Inkisizioak egindako ahaleginak ezerezean gelditu ziren, ordurako indiar jantziak eta afrikar erritmoak indarra hartua baitzuten. II. Munduko Guduan inauteriak bertan behera gelditu ziren, baina 1947az geroztik berriro indarra hartu zuten.

Dirudienez, *carnaval* hitza latinetik dator eta *carne vale* (agur okela) esan nahi du. Garizumak berrogei egunean jarritako debekuari aurre egiteko inauteri sasoian asetu beharra ikusten dute eta hortik egun horietan askoren neurrigabekeria.







SARAH GERMAN

## Mundukatuak

Amaiur Unzueta Zorrozueta Algortarra

# «Hemen bizitzea natura erdian bizitzea da»

Lauro urte Leioako IVIn biologo behar egin ostean, Bioetista jardun gura zuela-eta, urte sabatiko eskatu zuen lanean Amaiur Unzueta algortarrak, Torontoko Bioetika zentrorra joan ahal izateko. Zentro horretan 3 hilabete eman ondoren, Montrealera abiatu zen lan egitera, eta komite bioetikoetan parte hartzeko aukera izan zuen. Bertan zegoela, leku eta esperientzia desberdinak ezagutzeko gogoia zela-eta, biologiako lana utzi, eta Columbia Britaniarrra joan zen. Bertan, «paisaia basatiez» gozatzear gainera, bertako indigenen gainean gehiago ikasi gura zuen, bere burua elikaduraren alorrean murgiltzeagaz batera. Kontuak hala, hainbat urtez inguru desberdinetan lan egin eta ikasi ostean, 2015eko otsailean Revelstoken nutrizionista holistikoa da eta denda ekologiko batean dabil lanean. Hala ere, gurera bueltatzea da bere helbu-

rua, «elikadura-burujabetzari, garapen iraunkorrari eta ingurumenari lotutako heziketan lan egiteko».

### Jan eta edana

Bertako merkatuetan, hemengo pro-

“**Etxe atzeko lorategian hartzak eta oreinak ikusteko aukera izan dut hemen**”

duktuak aurki daitezke, baina janaria garestiagoa dela dio Unzueta, «ostera, hemengo soldatak altuagoak direla ere kontutan hartu beharrekoa da». Indigenak kenduta, Kanada Europako eta Asiako etorkinen ondorengoz «josita» dagoela dio, eta hori dela-eta, euren gastronomia ezarri da bertan. Berbarako, Quebecen *poutine* delako plater

ezaguna eta astigar jarabea dituzte. Halaber, bertakoei pikantea gustatzen zaiela uste du algortarrak. Edariei dagokienez, Revelstoken «bertako garga-gardoa eta Okanagako ardoa» edaten direla gehien dio.

### Zer ikusi

Naturaren bihotzean bizi da Unzueta. Mendi artean bizi denez, etxe atzeko lorategian hartzak eta oreinak ikusteko aukera izan du. Halere, animaliez gain, inguruan badago zer ikusi, hala nola Mount Revelstoke eta Glacier National parkeak. Trenen Museoa ere bisita daiteke, 1885 inguruan txinatarrek eta europarrek Kanadako ekialdea eta mendebalde lotzeko eraiki zuten trenbidearen historia ezagutzeko. Eskiak ere garrantzi handia du inguru horretan. Eskandinaviarrek eroan zuten XX. mende hasieran, eta ordutik eskiatzeko zaletasuna nabarmendu da. ◀

## NOR DA

### Nongoa

Algortakoa

### Adina

35 urte

### Zertan dabil

Nutrizionista holistikoa moduan, eta denda ekologiko batean lanean.

### Ikasketak

Biologian lizentziaduna (EHUn, 3 urte, eta azken 2 urteak, Bartzelonan), Bioetika eta Zuzenbideko masterra (Bartzelonako Unibertsitatea), eta *Holistic Nutrition* diploma.

### Noiz arte Kanadan?

Printzipioz, 2016ko urrira arte.

## NON DAGO



### Lurraldea

Kanadako Columbia Britaniarra

### Azalera

944.735 km<sup>2</sup>

### Hiria

Revelstoke

### Biztanleria

7.139

### Hizkuntzak

Ingelesa da hizkuntza nagusia, frantsesagaz batera; azken hori Quebecen mintzaira ofizial bakarra da. Kanada ofizialki elebiduna da, baina frantses hiztunak praktikan ekialdean eta Albertan daude. Iparraldean, inuitera-hiztunak bizi dira; halaber, Eskoziako gaeleratik eratorritako Kanadako gaelera oraindino erabiltzen dute Kanadako hainbat lekutan.

### Dirua

Dolar kanadarra.

## Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua